ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko uztailaren 13a > Astelehena > VII. urtea > 241. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Ingurunea asko aldatu barik espazio publikoa berreskuratu gura izan dugu gure proiektuan"

**Jon Muniategiandikoetxea**
Arkitektoa > 08

**G2a** Kukai dantza taldearen, 'Soka' ikuskizuna > 30

**EZBEHARRA**
Basoan lanean zegoela, 52 urteko gizon bat hil da Antzuolan > 04

**EKONOMIA**
Moldcam ez ixteko eskatzen jarraitzen dute langileek > 06

**SASKIBALOIA**
Kanastak Bergarako plazara atera zituzten hirunako txapelketan > 23

**AZPIEGITURAK** > AP-1

# Autobidea abian dagoen arren, lan asko dago oraindik egiteko

**KALTEAK** Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalak zain daude Diputazioak AP-1en kalteen gaineko konponketak egiteko

**ADOSTASUNA** Orain arte Diputazioak eta udalek egin dituzten batzarretan Aldundiak onartu ditu egin beharrekoak

**GATZAGARA** Gaur, Diputazioko Errepideetako arduradunak joango dira Gatzagako errepideak ikustera > 04

**ZIKLISMOA** > ANTZUOLA

## Pello Bilbao izan zen azkarrena

Ez zuen esprintaren beharrik izan, zortzi segundoko aldearekin iritsi zen helmugara. > 24-25



**PLAKA OROIGARRIA** Herriko elkarteko presidente Florentino Lamarianok plaka oroigarria jaso zuen, Inazio Goikoetxea, Jose Riviere eta Ernesto Arranz ondoan zituela. JOSETXO ARANTZABAL

## Antzuolako erretiratuen elkarteak zilarrezko ezteiak ospatu ditu

Antzuolako erretiratuek hitzordu berezia izan zuten atzo, domeka. Herriko erretiratu eta pentsiodunen elkartearen 25. urtemuga ospatu zuten. Eguerdi partean, Gipuzkoako eta Debagoieneko erretiratuen elkarteko ordezkariez lagunduta, ekitalditxoa egin zuten eta jarraian, bazkaria eta dantzaldia izan zuten. Ospakizunetan 150 bat lagunek esku hartu zuten. > 13

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**ARETXABALETA** > TENDENTZIAK

## Hip-hop jai koloretsua egin zuten

Udalak antolatuta, zapatuan Hip-Hop Eguna egin zuten lehenengo aldiz Aretxabaletan. Scratch, break eta grafiti tailerrez gain, erakustaldiak eta kontzertua egin zituzten egun osoan Kurtzeberri eskolako patioan. > 29



Besteak beste, break egiten ikasteko aukera izan zen zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL



Mundumirako kamiseta. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

# Berriz ere.

**GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoienean, berriz ere.**
CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio.
Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero.
Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek.
Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.




Goienkaria

**HISTORIAURREA** > LEZETXIKI KOBAZULOA

# Giza presentziari dagokionez, aurkikuntza gutxi Lezetxikin

**14. KANPAINA** Urtero moduan, hogei boluntariotik gora daude egunotan Lezetxikin, Alvaro Arrizabalagaren aginduetara indusketa lanak egiten

**AURKIKUNTZA** Arrizabalagak azaldu digu aurten giza aztarna gutxi topatu dituztela oraingoz; eguenera arte egongo dira esandako aztarnategian

**GIZA AZTARNAK** Arrasateko Garagartza auzoan dagoen kobazuloan Euskal Herriko giza aztarna zaharrenak topatu zituen Jose Migel Barandiaranek

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Arrasateko Garagartza auzoan dagoen Lezetxiki kobazuloan indusketa lanekin dihardute. Azken urteotako ohiturari jarraituz, boluntario taldea dabil han lanean ekainaren 29tik. Indusketa horien arduradun Alvaro Arrizabalagak esan digu aurten hogei lagun baino gehiago daudela han eguenera arte; aztarnategia utziko duten egunera arte. Gehienak arkeologiako ikasleak eta Euskal Herrikoak baldin badira ere, Espainiako Estatutik etorritakoak ere badaudela azaldu digu, hala nola, Madrilgo, Granadako eta Valentziako unibertsitateetatik iritsitakoak.

Arrizabalagak esan digu bi zatitan jarraitzen dutela indusketak egiten: Lezetxiki kobarekin konektatuta dagoen kobazulo txikian (Lezetxiki 2 bezala ezaguna dena) eta kobazulo nagusiaren hegoaldeko atarian. Tresna eta animalia hezurrak berreskuratzen saiatzen dira. Horren harira, gizakiaren presentziari dagokionez, aurten, oraingoz, aurkikuntza gutxi topatu dituztela aurreratu du.



Indusketa lanekin eguenean, hilak 16, amaituko dute Lezetxikin. GOIENKARIA

**GIZA AZTARNA ZAHARRENAK HAN**

Hori aurtengo aurkikuntzei dagokionez; aurretik garrantzia itzela duten aurkikuntzak egin izan dituzte-eta han. Bertan topatu dira Euskal Herriko giza aztarnarik zaharrenak; Neandertal aurreko aztarnak, orain dela 150.000 urtekoak, gutxi gora behera.

Lezetxiki kobazuloa 1927an aurkitu bazuten ere, 1956tik 1968ra bitartean egin ziren indusketarik garrantzitsuenak, Jose Migel Barandiaranen eskutik. Indusketa horietan 30 bat urte zituen emakume baten besahezurra topatu zuten. Azterketek ondorioztatu zuten Homo Heidelbergensis giza espeziarena izan zitekeela emakume hori; hau da, neanderthal aurreko espeziarena. Gainera, neanderthal fosilak ere azaldu ziren; tartean, garai hartako gizakien hortzak eta ziurrenik zintzilikari bezala erabili zen maskorra.

**HAINBAT HARTZA MOTA**

Arrizabalagak, horren harira, kobaren garrantzia azpimarratu du: "3.000 urte baino luzeagoa den sekuentzia guztia islatzen digu; orain dela 150.000 urte inguruko bizimodua". Aurkikuntza horietaz gain, hainbat animalien fosilak topatu zituzten; tartean, azkonar jatuna, errinozero iletsua, haitzuloetako lehoia, oreintzarra, bisontea eta hainbat hartza mota. Animali horien presentziak ahalbideratu zuen garai hartan Leizetxikiko ingurunearen gainean zerbait gehiago jakitea.

1996an, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Alvaro Arrizabalagak gidatutako taldea iritsi zen Lezetxikira. Barandiaranek topatutako besahezurra kokatzea eta historian, aztarnategiak duen garrantzia azaleratzea du helburu. Bihar, martitzena, aurtengo kanpainako aurkikuntzen berri emango du.

**Alvaro Arrizabalaga** > Indusketen arduraduna

## "Arrasaten bertan jendea dago Lezetxiki zer den ez dakiena"

**M.B.** > ARRASATE

**Alvaro Arrizabalaga Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko irakaslea da. Aurten, 14 urte bete ditu Lezetxiki kobazuloan indusketak egiten. Arrasaten, berriz, gutxienez 20 urte daramatza.**

Joan den uztailaren 1ean, bisita berezia izan zenuten Lezetxikin. *El clan del oso cavernario* liburuaren egile Jean M. Auel izan zen esandako kobazuloan, bere liburu berrirako inspirazio bila. **Garrantzitsua izango da horrelako pertsona bat Lezetxikin egotea, ezta?**

Garrantzia enblematikoa eta sinbolikoa du bisita horrek. Azken finean, gu oso harro gaude egiten dugun lanarekin eta oso pozik ateratzen ari garen emaitzekin. Baina, aldi berean, esan beharra dago arazoak ditugula hemen egiten ditugun lanak ezagutzera emateko. Kale mailan iragazgaiztasun handia dago horrelako gaiekin. Urteak daramatzagu gure mezua zabaltzen baina, onartu behar dut ez dela batere erraza kalean horrelako gai bat gizarteratzea eta azaleraztea zer punturaino diren garrantzitsuak horrelako lekuak; ez bakarrik Euskal Herri mailan, baita Penintsula Iberikoan eta Europa mailan ere.

**Hortaz, horrek lagundu egin du...**

Bai, hala da. Arkeologoa ez bada ere, Jean M. Auel oso pertsonai ezaguna da, jende askok irakurri ditu-eta bere liburuak eta horrek zenbaitetan laguntzen du; arlo akademikoan baino, gehiago kale mailan lekua ezagutarazten. Kontuan izan behar dugu, Arrasaten bertan oraindik badagoela jendea ez dakiela Lezetxiki zer den. Oso zaila da iragaiztasun hori saihestea.



GOIENKARIA

**Noiz arte indusketa lanekin?**

Auskalo. Esan bezala, oso gustura gaude Lezetxikin lan egiten. Gainontzeko aztarnategiekin alderatuta, Lezetxikiren zirkunstantzia apartak dira. Gure helburua betidanik izan da Lezetxikiko hondoa jotzea eta maila arkeologiko berriak azalarazten ari dira. Hortaz, haitza topatu bitartean, jarraituko dugu; ez dakigu zenbat urte beharko ditugun. Dakiguna da materiala ateratzen jarraituko dugula.

**AZPIEGITURAK** > AP-1

# Autobidea abian dagoen arren, lan asko dago oraindik bukatzear

Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udala zain daude eskatutako konponketak egiteko

Gaur, astelehena, Diputaziotik Leintz Gatzagara joango dira errepideak ikustera

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eibar-Gasteiz autobidearen azken zatia maiatzaren 22an erabiltzaileendako zabaldu zuten arren, oraindik badira bukatu bariko lanak. Autobideak zeharkatzen dituen udalerrietan lur desjabetzeekin eta bestelako lanekin lotutako neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile asko falta dira betetzeko.

**DIPUTAZIOAK, ONARTUTA**

Autobideko azken zatiak zeharkatzen dituen hiru udalerrietako alkateekin izan gara, eta horiek jakinarazi digute Diputazioak egin beharreko lan horiek onartu dituela; hala ere, zenbait herritan kezkatuta daude baiezkoak jaso arren, lanean hasi ez direlako.

Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok azaldu digu Udalaren kezka nagusia neurri zuzentzaileak direla; hau da, autobidearen lanen ondorioz hondatu edo kaltetu dutena konpontzea edo ondo uztea. Guztira, 28 neurri zuzentzaile adostuta daukate Diputazioarekin, eta horretarako hiru alditan batzartu dira ekainetik.

Inaxio Garrok azpimarratu du Aldundiarekin adostutakoetatik Udalarendako lehentasunak honako hauek direla: Izurietako harri-lubeta egitea, Basagoiti berreskuratzeko inpaktu-txostena egitea, Oro auzoko seigarren bidea berreskuratzea, Apotzaetxebarriko zulo handia estali edo berreskuratzea, Lausitako ur biltegiak berreskuratzea eta Egileor ingurua ondo uztea, hain zuzen ere.

**AP-1EN GAINEKO LAN-TALDEA**

Eibar-Gasteiz autobideko lanen ondorioak eta konponbideak aztertzeko lan-taldea dabil Iburubelarri Aretxabaletan. Berori udal politikari, udal teknikari eta kaltetuek osatzen dute. Horren harira, joan den astean hainbat kaltetuk eskaera egin zuten udaletxean, osoko bilkurak lantaldeari babesa eman diezaion.

Eskoriatzan ere Udalaren Azpiegituren Azpibatzordeak eta Onbide.org elkarteak autobidearen lanei jarraipena egiten dabiltza. Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek azaldu digu Udalean "urduri jartzen hasiak" direla, Diputazioak Udalak eskatutako neurri gehienei baietza eman zien arren, oraindik ez direlako lanean hasi.

Honako hauek dira Eskoriatzako Udalak eskatutako neurri zuzentzaileak: Marin, Zarimutz, Mazmela eta Apotzagako errepideak guztiz konpontzea; herriko errepide nagusiko kalteak konpontzea; Marin, Zarimutz eta Mazmelako erreka-bazter eta natur-guneak berreskuratzea; partzela eta etxeei sarbide egokiak ematea; ur-hornidura sareak birgaitzea; lanetarako erabilitako nekazal-lurrak jabeei txukunduta bueltatzea; lur-jausiak konpontzea; zaratak murrizteko neurriak hartzea eta beste.

Konpensazio neurriei dagokionez, eskatu dute herrigunean aparkalekuak egiteko, kaltetutako auzoetarako laguntzak ematea eta nekazal jarduera duten baserritarrei galdutakoaren ordainetan lursail egokiak eskaintzea.

**DIPUTAZIOTIK, GAUR GATZAGARA**

Leintz Gatzagako alkate Eusebio Villarrek azaldu digu Diputaziotik gaur Gatzagara joatekoak direla. Villarren ardura nagusia da autobidea bukatu ahala, errepide zaharrean konponketak egitea. Horrez gain, azaldu du partikular baten bidea konpontzea eta desjabetza baten lurra bueltatzea ere eskatu dutela.

**SOZIOLOGIA** > URTEMUGA

# Lege Soziologia Institutuak, 20 urte

20. urteurrenaren egitarauko itxiera ekitaldian Eli Galdosen izena daukan plaka bat jarri eta jendaurrean erakutsi zuten Oñatiko institutuan

**I.B.** > OÑATI

Oñatiko Lege Soziologia Institutuak 20 urte bete ditu, eta arrazoi horregatik *Konplexutasuna, gatazka eta justizia. Lege soziologiaren 20 urte* izenpean jardunaldiak egin dituzte. Martitzenean hasi eta egubakoitzera bitartean hainbat gai aztertu dituzte, eta mahainguruetan nazioarteko aditu askok esku hartu dute.

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Elkartea 1989an jaio zen, mundu guztiko lege-soziologian adituek eztabaida eta elkargune bat izan zezaten. Ideia zientifikoak azaldu, eta interesatutako pertsonei kurtso eta hitzaldiak emateko topalekua izan nahi zuen. Sortu aurretik idatzitako protokoloak dioen bezala, “Institutu horren helburua izango da Soziologia Juridikoak lantzen dituen arlo desberdinei buruz une bakoitzean garatzen diren ikerketen ekarpen, eztabaida, azterketa eta konparazio bidez aurrera egitea”.

Urteurrenaren itxierako ekitaldiaren barruan institutuaren departamenduetako bati Eli Galdosen izena jarri zioten; eta haren senitartekoek ere esku hartu zuten ekitaldian.



Institutuko departamendu bati Eli Galdos izena jarri zioten. GOIENKARIA

**EZBEHARRA**

# Gizon bat hil da basoan lanean

Antzuolako 52 urteko gizon batek ezbeharra izan zuen zapatu goizean

**GOIENKARIA** > ANTZUOLA

Herenegun, zapatua, 52 urteko Antzuolako gizon bat hil zen udalerri bereko Lizarraga auzoan, haren baserriaren inguruan lanean zebilela. 10:45 aldera gertatu zen ezbeharra.

Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, bere lurretan zuhaitzei arramak mozten zebilen beste senitarteko batzuk lagunduta.

Halako baten, zuhaitzaren zati handi bat gainera etorri zitzaion, kolpea eman zion eta hil egin zen.

**EZIN SUSPERTU**

Zoritxarrez, Lizarraga auzora hurreratutako osasun zerbitzuek gizonaren heriotza besterik ezin izan zuten konfirmatu.

Istripua izandako gizonak urte asko Antzuolan bizi izaten zeraman arren, oñatiarra zen sortzez, eta oso ezaguna zen bi herriotan.

Arrazoi horregatik, ezbeharrak atsekabe handia zabaldu zen zapatu arratsaldean aipatutako bi herrietan.

> OROIMEN HISTORIKOA

## 1936ko gerran frankistek hil zituzten 14 abadeen omeneko meza egin zuten zapatuan Gasteizen

Gasteizko, Bilboko eta Donostiako gotzainek meza eskaini zieten 1936ko gerran frankistek fusilatu zituzten 14 apaizei, eta ehunka lagun batu ziren Gasteizko katedral berrian.

Gogoan izan zituzten abadeen artean, Debagoienekoak ere badaude; honako hauek: Leonardo Guridi Arrazola oñatiarra eta Jorge Iturrikastillo Arantzabal elgetarra, Eskoriatzan parrokoa izan zena. Biak Oiartzunen fusilatu zituzten 1936an Ondarretako espetxean egon ostean.

Horrez gain, Elizbarrutietako erregistroetan eta parrokia liburuetan abade horien bizitza eta heriotzaren inguruko datuak jasoko dituztela iragarri zuten.



TXOMIN MADINA

## San Kristobalgo ohiturari jarraituta

Egubakoitz eguerdian meza eman zuen Juan Kruz Mendizabal abadeak Bergarako San Kristobal auzoan, ohiturari jarraituta. Hala, meza bukatu ostean, gerturatutako autoak bedeinkatu egin zituen abadeak. Eta asko izan ziren hara eramandako autoak; asko, gainera, lore sorta gainean zutela eraman zituzten hara.

**TURISMOA** > MENDI IBILALDIAK

# Arantzazu inguruko ibilbideen gida-liburua

Poltsikoan edo aldean eramateko formatoan kaleratu dute eta maila ezberdinetako zortzi bidezidor jasotzen ditu mendizaleendako eta familiendako


Arantzazuko inguruak hobeto ezagutzeko aukera emango du gidak. GOIENKARIA

**OIHANA ELORZA** > OÑATI
Arantzazu ingurua ezagutzeko zortzi ibilbide jasotzen dituen gida-liburua kaleratu du Arantzazu Gaur Fundazioak. "Fundazioaren helburu nagusia da Arantzazuk dituen balioak, kultura eta natura baloratzea, eta aurten aukera horiek nabarmentzeko kanpaina egin dugu. Balio horiek zabaltzeko atera dugun bigarren liburua da, ibilbideak egin gura dituenari zuzenduta", dio Iker Usonek, Arantzazu Gaur Fundazioko zuzendari eta gida-liburuaren koordinatzaileak.

**ZORTZI IBILBIDE**
Poltsikoan edo motxilan sartzeko moduko formatuan atera dute liburu hau eta zortzi ibilbide edo bidezidor proposatzen ditu. "Gipuzkoar askorendako ezagunak dira aukera batzuk, baina gida-liburua kanpoko pertsonengan ere pentsatuz egin dugu. Horrela, tartean daude, adibidez, Aloña, Urbia edo Aizkorrira igotzeko ibilbide ezagunak; baserrien inguruko bidezidor bat; Arantzazu eta Gomiztegi lotzen dituen paseo egokitua eta Iturrigorrirako bidea", azaldu du Usonek.

"Maila ezberdinetako irteerak dira, mendizaleek zein familia giroan egiteko modukoak. Ibilbidearen mailarekin batera, egiteko behar den gutxi gorabeherako denbora eta eraman beharreko oinetako mota ere jasotzen du gida-liburuak. Azken finean, Arantzazuk duen kirol eta natura eskaintzaren gida-liburua da", argitu du Arantzazu Gaur Fundazioko zuzendariak. Gida hiru eurotan saltzen dute Arantzazuko dendetan.

**PASEO EGOKITUA**
Bestalde, Arantzazu eta Gomiztegi lotzen dituen paseo egokitua zabaldu zutenetik jende askok egiten duela esan du Usonek.

etxeko leihotik


**Ubane Madera** > 'arrasate@goiena.com'

## Kanpokoek ikusten dutena etxekoek ez

Egubakoitzean iragarri zuten Irunen Gipuzkoako aztarna arkeologikoak batu eta gordeko dituen biltegia eraiki behar dutela. Segituan akordatu nintzen Arrasaterekin; hobeto esanda, Arrasate eta Lezetxikirekin; pentsatzen dut-eta, Lezetxikiko aztarna asko Irungo biltegi horretan gordeko dituztela.

Izan ere, horixe da justu, Leze Txiki urteetan aztertzen ibili direnek behin eta berriro (urtero ia) errepikatzen dutena: Lezetxikiko aztarnei, gertukoenek, behintzat, ez dietela duten garrantzia aitortzen.

Neu ez naiz batere aditua arkeologia kontuetan, eta ulertzen dut, baita ere (bereziki halako gai espezializatuetan), jende asko galdu egiten dela eta ondorioz, ez dela erraza izaten gure arreta eta interesa piztea.

**"Adituek aspaldi aitortu diote garrantzia Leze Txikiko aztarnategiari"**

Baina Lezetxikiren kasuan, joan den astean ArrasatenAmeriketako bisitariak izan ziren: Auel, *El Clan del Oso Cavernario* liburuaren idazlea eta hari laguntzen etorri ziren adituak. Haien bisitak erakutsi zidan, niri behintzat, Lezetxiki benetan dela garrantzitsua, esanguratsua; eta seguru aski, guk uste baino askoz ere ezagunagoa (gure mugetatik kanpo, sikiera).

Kanpokoa etxekoa baino gehiago apreziatzea sarri gertatzen zaigu; etxekoari apreziorik ez egitea kanpoko norbaitek egin arte ere bai. Etxekoa dugu Leze Txiki. Eta kanpokoek aspaldi aitortu diote dagokiona. Gure txanda da orain.

**> Museoa**
**Ibili dira urteotan Arrasaten Industria Museoa egin guran; materiala batu eta egin zuten, sasoi batean, erakusketa industriala; ondare horri garrantzia kendu barik, zergatik ez Lezetxikiko aztarnak batuko dituen museoa?**

**> Bisitari ekarle**
**Museo batek Lezetxikiko aztarnei garrantzia aitortzeaz gainera, ingurukoak eta kanpotarrak ere erakarriko lituzke Arrasatera, Gatzagako Gatz-Museora moduan edo Eskoriatzako Ibarraundi museora moduan**

**HEZKUNTZA** > AZOKA

# Jarraipena izango du Lanbide Heziketaren azokak

Datorren urtean Aste Santuaren ostean berriro egiteko aukera aztertuko du Debagoieneko Mankomunitateak

**O.E.** > ARRASATE
Jende asko ibili ez arren, Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeek egindako erakusleihoa "esperientzia ona" izan dela uste du antolatzaileak, Debagoieneko Mankomunitateak. "Egia esan, ideia bera ere berria zen eta nahiz eta erakusleiho hori egiteko datak aproposenak ez zirela ikusi, argi genuen egin beharra zegoela", dio Amaia Irizarrek, Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikariak.

**APIRILEAN**
"Nahiz eta oraindik ere aukera egon Lanbide Heziketan matrikula egiteko, Aste Santu ostean hasten da jendea begira datorren ikasturtean zer eta non ikasi dezakeen, eta bigarren azoka martxoan edo apirilean egitea aztertuko dugu, data egokiagoak dira-eta", dio Amaia Irizarrek.

Irizarren esanetan, eurak ez ezik azokan parte hartu duten ikastetxeak ere pozik daude ideiarekin. "Froga bat zen, baina denei gustatu zaie. Datorren urtean ere errepikatzeko prest daude. Aurtengoak ez ezik erakunde gehiago etorriko diren edo ez aztertu beharko dugu", zehaztu du. "Kulturate, bestalde, azoka egiteko toki aproposa dela iruditu zaie denei. "Klaustroaren bueltan zegoen informazio guztia eta hango Biteri gelan izan ziren hitzaldiak. Luis Herrero del Arco adituaren hitzaldian 25 lagun egon ziren. Oraina eta etorkizuna aztertu zuten.


Arrasateko kulturaten egin zuten azoka. MANKOMUNITATEA

**KOOPERATIBAK** > EROSKI

# Bost denda saldu ditu Eroskik Madrilen, errentagarritasun proiektu baten barne

Hiber kateari saldu dizkio dendok, eta ez du jakinarazi ze kostu izan duen salerosketak

Hamabi hipermerkatu saldu zituen azaroan, errentan erabiltzeko eskubidea gordeta

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Eroski Taldeak bost supermerkatu eskualdatu ditu Madrilen; hain zuzen, Madrilgo hegoaldean zeuzkan bost denda hango Hiber supermerkatu-enpresa familiarrari saldu dizkio. Saldutako dendok Caprabok Eroskin sartu aurretik erositako Alcosto katearenak ziren. Eroskik ez du jakinarazi zenbateko salerosketa izan den.

Eroski Taldeko ordezkariek gezurtatu egin dute hainbat komunikabidetan ateratako beste datu batzuk, hala nola beste hamar supermerkatu itxi egin dituela, eta baita 500 langile kaleratuko dituztela ere: "Erosleari multzo osoa saldu zaio: supermerkatuak eta langileak", diote.

Eroskiren errentagarritasun proiektu baten barruan kokatzen da neurri hau: "Eskaintza eskaerari moldatzea proiektu horren barruan dago", esan dute arduradunek.

**AZAROAN ERE SALDU ZUTEN**

Ez da lehenengo aldia epe laburrean Eroskik dendak saldu edo eskualdatzen dituena; joan den azaroan, EAEko eta Nafarroako 12 hipermerkatu saldu zizkion Topland enpresari, baina zentrook errentan hartzeko eskubidea gorde zuen. 361 milioi euroko operazioa izan zen hura. Gogoratu behar da iazko ekitaldia 97 milioiko galerekin itxi zuela Eroski Taldeak. Arduradunek esan zutenez, 2008an izandako ezohiko gastuek eragin zuten hori, eta hor sartuko lirateke Caprabo Eroskiren egituran sartzea eta denda berriak irekitzearen gastuak.

**SALMENTETAN, HIRUGARREN**

Edozelan ere, Eroskik indartsu jarraitzen du, izan ere, Estatuan salmenta handienak egin zituen hirugarren banatzailea izan zen iaz. Denetara, sektoreak 76.790 milioi euro fakturatu zituen iaz Espainian, eta bost talde handik horren %62,49 egin zuten. Eroskik, Vegalsa eta Capraborekin, salmenta guztien %11,74 egin zuen; lehenengo Carrefour eta Dia izan ziren (%19,46), eta bigarren, Mercadona (%18,6).

BESTE NEGOZIO BAT

## Aseguru denda berria ipini du Interneten

Interneten ere zabaltzen jarraitzen du Eroskik; orain azkeneko, aseguru arloko *on-line* denda batekin: *www.eroski.es/seguros*. Horretan, hainbat aseguru-enpresak etxebizitza, automobil, osasun eta bizi-aseguruetan egiten dituzten eskaintzak batzen ditu Eroskik, eta horietara sarrera ematen du.

Zerbitzua Aon artekaritzak diseinatu du, Caser, Pelayo, Liberty, Aviva, Direct Seguros eta Sanitas aseguru-enpresen produktuekin. Zerbitzu berri horrekin, Eroski Taldearen helburua da aseguru arloan hazten jarraitzea. 2008an, arloko fakturazioa %10 igo zen Eroskirendako.

**ENPRESAK** > MOLDCAM

## Moldcam ez ixteko eskatzen jarraitzen dute

Lege konkurtsalaren babesa eskatu du enpresak; langileek agerraldia egin zuten egubakoitzean




Moldcameko langileen agerraldia Arrasateko Herriko Plazan. JOSETXO ARANTZABAL

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Arrasateko Moldcam enpresako langileek kale-agerraldia egin zuten egubakoitz arratsaldean, euren egoeraz protesta egiteko. Gogorarazi dute lau hilabeteko nomina ez dutela kobratu, ez eta abenduko %1eko ohiko gehigarria ere. Horrez gain, zuzendaritzak ekainaren 19an lege konkurtsalaren babespean sartzeko eskaera egin zuela-eta, enpresa-batzordeak salatu du hori "lantegia lehenbailehen ixteko" egin dutela, eta "39 langile kale gorrian geratzeko zori-zorian" daudela.

Salaketa gogorrak egiten ditu enpresa-batzordeak: besteak beste, gaur egungo zuzendaritzari, "bi urtean bi milioi euroko zuloa egin ondoren, lantegia pikutara joateko arriskuan uztea" leporatzen diote.

Zuzendaritzak ez du adierazpenik egin, bakar-bakarrik baieztatu du epaileak ezarritako administratzailearen esanaren zain daudela orain.

ELAk esan duenez, Moldcamek "iaz" eskatu behar zuen lege konkurtsalaren babesa, enpresak "aspaldi" dauzkalako "arazo larriak".

**GATAZKA LUZEA**

Hilabete asko dirau dagoeneko Moldcameko gatazkak, eta langileek kale bilkurak egiten dituzte egubakoitz arratsaldero, eta itxialdi bat ere egin zuten. Martxotik ekainera arteko nominak ez dituzte kobratu, eta 2008ko irailetik Geroa kontzeptua ez dietela ordaindu ere esaten dute. Lehengo jabeak zeudenetik datoz arazoak: enpresa-batzordeak dio haiek ere "ahalegindu" zirela "langileak lantegitik kentzen".

Oraingo zuzendaritzak beti ukatu izan ditu salaketak, eta esan du enpresa "aurrera eramateko" asmoz hartu zutela Moldcamen ardura.

## Lau ekintzailetza proiektu saritu ditu MUren Ekiten programak

Lehenengo aldiz, Mondragon Unibertsitatearen Ekiten lehiaketak bi kategoriatan banatu ditu sariak. Eguenean izan zen. Enpresa Ideia Berrien III. Lehiaketan, hiru sari eman ditu: eguzki-izpien bila autobiratzen den itzalkin "adimentsua", auto elektrikoak kargatzeko azpiegitura eta merkatari txikiari zuzendutako marketin enpresa bat (ezkumako argazkian); eta Landa Garapen Iraunkorrerako Ideia eta Proiektuen I. Lehiaketan, Debagoieneko eta Debabarreneko landa garapen elkarteekin batera antolatuta, landa inguruneko autohorniketarako eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektu bat (eskerreko argazkian).





GOIENKARIA

auzorik auzo

**ZAÑARTU** > Oñatiko auzoa da Zañartu. Leku lasaia da, paseoan ibiltzeko egokia. Jende askok ezagutzen du, bertan dago-eta Usako erreka. Hango auzo-alkatearekin izan gara auzoko gorabeherak ezagutzeko.



Arrate Elortza, Santa Kruz ermitaren aurrealdean. A.EZKIBEL

Arrate Elortza > Zañartuko auzo-alkatea

# "Ingurune oso iluna da, eta jende asko ibiltzen denez argiak jartzea eskatu dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Arrate Elortza da Zañartuko auzo-alkatea. Angiozarkoa da jaiotzez, baina azkeneko 25 urteetan Zañartun bizi da. Orain dela bi urte auzolanean egin zuten auzoko lokala auzotarrek; Elortzaren ustez, "bizitasuna" eman dio lokalak auzoari.**

**Zein da auzoaren egoera gaur egun?**

Etxe bakoitzean bi edo hiru pertsona daude; hortaz, gutxi gorabehera 60 lagun bizi gara auzoan. Gazte oso gutxi daude; auzoan 20 etxe baldin badaude, hirutan izan ezik beste guztietan erretiratutako jendea bizi da.

**Hortaz, biztanleriak behera egin duela esan daiteke.**

Bai, biztanle kopurua jaitsi egin da. 1970. urtean 115 lagun bizi ziren eta 2000. urtean, 60 lagun. Auzoa hutsik geratzeko arriskua? Horrela jarraitzen badu bai, ez dago-eta gazterik.

**Zein da auzotarrek duzuen kezka nagusia?**

Uda partean Usako inguruan gertatzen dena izan daiteke arazo bat. Orain ere, Usakon jarri zuten aldagela apurtu egin berri dute; eta, bestalde, inguruko zelaietan sartzen direnek ere kalteak eragiten dituzte.

**Argia ipintzea eskatu duzue behin baino gehiagotan.**

Bai, orain dira ipintzekoak. Oso ingurune iluna da, eta jende asko ibiltzen da paseoan. Esaten dute aurten jarriko dutela argia. Bestalde, errepidea etxe guztietara iristen da.

**Saneamendua eginda daukazue eta ura Urkulutik jasotzen duzue?**

Bai, ura Urkulukoa da. Saneamendua orain dela urte batzuk egin genuen eta baserri bakoitzak dirua ipini behar izan zuen lanak egiteko.

Internetik, adibidez, ezin dugu ipini Euskaltelekin, denok Telefonicarekin daukagu. Gasik ere ez daukagu eta zaborra kalean baino gutxiagotan jasotzen dute eta gehiago ordaindu behar dugu, zabor bilketa puntua etxetik hainbat metrotara dugulako.

**Orain dela bi urte auzo elkartea egin zenuten. Zer dela eta?**

Auzo-lanean egindako elkartea da. Auzotarrak elkartzeko leku ezin hobea da; egia esan, bizitasun handia eman dio auzoari. Jaietan erabiltzen dugu, baina baita urtean zehar afariak egiteko-eta.

**Bi ermita daude auzoan, Santa Kruz eta San Julian.**

Bai, zaharrena San Juliangoa ei da –lehenengo datuak 1599. urtekoak dira–. Santa Kruz elizaren mendeurrena 2006an ospatu genuen. Teresa Elortza zenak auzoari emandako lokala da. Lehen, eskola eta mojen komentua zegoen hemen. Eliza agustindarrek eramaten dute eta eskola, ostera, Karitateko alabek eramaten zuten.

**Auzoak eman du pertsonaia ezagunik?**

Luis Manuel Zañartu Txileko korrejidorea izandakoa (1723-1782) eta Eli Galdos, adibidez.

USAKO

## Sorosle zerbitzua egongo da Usakon uda partean

Auzotarrendako Usako berezia da, baina uda partean beteta egoten da, gainezka. Hortaz, jende gutxien dabilen orduak aprobetxatzen dituzte auzotarrek eta baita oñatiar askok ere Usakora joateko.

Iaz bezala, aurten ere soroslea egongo da Usakon. Hilaren 15ean hasiko da soroslea lanean, eta irailaren 15era arte egongo da. Sorosleare ordutegia izango da: astelehenetik domekara, 11:00etatik 20:00etara. Sorosle zerbitzua jartzeaz gain, iturria, dutxak eta aldagelak jarri zituzten iaz Usakon, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aginduz.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Uztaileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

MUNDUMIRA KAMISETA
Mundumira
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.

ATXAGAREN LIBURUA
PAMIELA
BIDALI AG ATXAGA 5533 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

RIP TALDEAREN DVD-A
Goiena
BIDALI AG RIP 5533 zkra

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14 | S. Josepe, 10 943 77 01 33 | Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Mondragon Unibertsitateak Basque Culinary Center proiektua jarri zuen martxan joan den urtarrilean. Miramonen kokatuko da, eta 2011n martxan jartzea espero dute. Orain, eraikinaren diseinu lehiaketa egin dute. Irabazlea Donostiako Vaumm arkitekto taldea izan da. Tartean dago Bergarako Jon Muniategiandikoetxea arkitektoa. Harekin izan gara.

**Jon Muniategiandikoetxea** > Arkitektoa

# "Ingurunea asko aldatu barik espazio publikoa berreskuratu gura izan dugu"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**20 urte dira Muniategiandikoetxea Donostiara joan zela Arkitektura ikasketak egitera. Ikasketak amaitu eta lanean hasi zen; hainbat estudiotan ibili ostean, orain dagoen lantaldean sartu zen duela bost urte. Lehiaketa askotan finalista geratu ondoren, Basque Culinary Center irabaztea izugarria izan dela aitortu digu.**



Jon Muniategiandikoetxea arkitekto bergararra. Vaumm taldea hamar urte doa lanean, eta Muniategiandikoetxea orain dela bost urte sartu zen. GOIENKARIA

**Zer hartu duzue kontuan proiektu hau diseinatzeko orduan?**

Guk aspaldi egiten dugun arkitektura baten jarraipena da proiektu hau. Ingurunearekin errespetu handia izan dugu. Orube arraro samarra da Basque Culinary center egingo duten lekua, familia bakarreko etxeak dauzka ondoan. Sarrerak ditu etxe artetik, horregatik oso garrantzitsua zen eskala zaintzea. Eraikinak izan behar duela ingurune horrekin, etxe horiekin bat datorrena.

Bestalde, lan guztietan, gure helburua izaten da espazio publikoa berreskuratzea. Ingurunea askorik eraldatu barik, kanpoak eta barruak bat egitea. Esan daiteke ez dakizula noiz zauden barruan eta noiz kanpoan.

**Nolako eraikina izango da?**

Aurrealdean plaza handi bat izango du, eta aldamenetan arrapala txikiak izango ditu, ibilbide bat egingo dutenak. Ibilbide horietatik eraikinera sartuko zara. Inguruko espazioekin jokatu dugu, eta ahal den neurrian espazio publiko gutxi galtzen ahalegindu gara.

Ideia lehiaketa izan da; hortaz, datu zehatzak oraindik definitu barik daude. Metro koadroei dagokienez, 5.000 bat izango ditu. Materiala, berriz, zehaztu barik dago. Bandeja estiloko eraikina da, eta ziurrenik zeramika erabiliko dugu, baina, esan bezala, zehaztu barik dago.

**Culinary Landscape izena jarri diozue. Zer esan gura duzue horrekin?**

Eraikinak badauka nazioarteko ikuspegia, nahiz eta atzean euskal erakundeak egon. Gu Culinary berbarekin hasi ginen, eta jokatu gura izan dugu paisaia, berdegunea... Izen samurra dela uste dugu, eta proiektua definitzen duena.

Normalean leloak azken ordukoak izaten diren arren, kasu honetan ez da hala izan.

**Nazioarte mailan erreferentzia izango da Unibertsitatea. Eraikina ere erreferente izango da?**

Eraikin publikoak beti dira erreferentzia edozein tokitan. Kasu honetan helburua da eraikina eta eraikinaren izaera nazioarte mailan erreferente izatea. Guk proiektuak beti berdin egiten ditugu; bai haurtzaindegia izan, bai eskola izan edo bai Basque Culinary Center izan. Gure helburua ez da erreferente izatea, gure helburua da eraikina ondo egotea forma aldetik. Erreferente izango da Gipuzkoan, ondo funtzionatzen badu.

Arkitektura aldetik ez dut uste inoiz izango denik erreferente; erreferente izango dira bertan egiten diren gauzak.

**Donostian dago eraikina; Miramonen, hain justu. Diseinatzeko orduan eraginik izaten du hiriak?**

Bai, beti da ezberdina. Izan ere, kokatuta joango den orubeak eragina dauka. Kasu honetan, Miramonen doa, eta ez dakit arkitektura eredugarria den Miramongoa.

ERAIKINA

**"Aurrealdean plaza hadi bat izango du, eta aldamenetan arrapala txikiak"**

ERREFERENTE

**"Arkitektura aldetik agian ez, baina bertan egiten dena erreferente izango da nazioartean"**

PUNTAKO ERAIKINA

**"Puntako izatea eta luxuzko izatea ez da gauza bera; eraikin hau puntakoa da"**

**Mondragon Unibertsitatea da proiektu honen atzean dagoena. Zein izan da eurekin izan duzuen harremana?**

Mondragon Unibertsitatearentzat oso apustu handia da. Hau izan daiteke mundu mailan erreferentea den proiektua, euren apustua kalitatezko gauza bat egitea da hezkuntza eredu baten barruan.

Eraikinaren apustua ere hori da, puntako eraikina izatea. Esan gura dut, teknologia aurreratuenak izango dituen eraikin bat izatea. Euren apustua hori izatea guretzat oso ona da; izan ere, biak norabide berean goazela esan gura du.

**Esan duzu proiektu handia dela. Bada, uste duzu gaur egungo krisi egoerak baldintzatu egingo duela eraikinaren etorkizuna?**

Puntako izatea eta luxuzkoa izatea ez da gauza bera. Puntako izatea da gauzak argi izatea eta hezkuntza ereduak berritzaileak izatea. Material berritzaileak ez du esan gura garestia denik. Zeramika, adibidez, orain dela 5.000 urtetik erabiltzen da... Egia da dirua behar dela, baina ez da luxuzkoa, puntakoa baizik.

Krisiak eragina izango duela uste dut. Gorabeherak izango dira eta moldatu egin beharko da eraikina.

**Beste proiektu handi batean, Donostiako Tabacaleran, finalista geratu zineten. Nola gogoratzen duzu?**

Pena izan zen; gainera, Zumarragako La Antiguako bisita gunerako eraikinean ere bigarrenak izan ginen. Uste dut Tabacalera Euskadi mailan eta mundu mailan erreferente izango dela. Lan handia egin genuen eta bigarren postuak pena eman zigun. Baina hura irabazi izan bagenu, ez genuen hau egingo.


ALDEKO AURREZKIA ALDEAN
Interesik gardenena.
Aurtengo udan, gozatu interesaz aldez aurretik. Hondartzan nahiz mendian, etxean zein oporretan, baina beti ere teknologia, diseinu eta erosotasun handiko punta-puntako produktu berriak erabiliz. Aukera ezazu zeure interesa zeure ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 zenbakian, kutxa.net-en edota kutxaren kutxazainetan.
Aukeratu zer eraman
Zein lote duzu nahiago: entsalada-ontzia + 4 katilu, ala pitxerra + 4 edalontzi? Hobe kolore gorrian dekoratutako beirazko sorta osoa eramaten baduzu. Eta hondartzako eskuoihala baten (PRIVATAren 2 modelo edo Realaren modelo bat), hondartzako etzaulki baten edo kamera digital baten arteko aukera ere egin dezakezu. Kontsulta itzazu baldintzak.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Agorrosingo igerileku berrian izan zara? Zein duzu gustukoen: hondartza, igerilekua edo urtegia?



**Daniel Diez**
Langabetua
Bergara

Ez, oraindik ez naiz pasa Agorrosingo igerileku berritik. Bestalde, eguraldi ona irteten denean, igerilekura edo urtegira baino, nahiago dut hondartzara joatea. Dena den, ez naiz askotan joaten den horietakoa.



**Karmele Uribesalgo**
Ikaslea
Bergara

Bai. Oso ondo dago, bereziki txirrista. Igerilekua hondartza baino gehiago gustatzen zait niri. Hondartzara gutxitan joaten naiz; kostaldera hurbiltzen garenean, Saturraranera joateko ohitura dugu etxean.



**Ane Eraña**
Ikaslea
Bergara

Bai, zabaldu zutenetik behin baino gehiagotan egon naiz kanpoko igerilekuan eta oso ondo dago. Igerilekua gustuko dut lagunekin egoten naizelako han. Hondartzara, berriz, etxekoekin joaten naiz.



**Alberto Pascual**
Langilea
Bergara

Ez, oraindik ez naiz egon, baina uda amaitu aurretik, joateko asmoa dut. Orain ez dut astirik, ume txikia dut-eta. Dena den, nahiago dut hondartzan egotea. Zarautzera joaten gara normalean egun-pasa.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE-ARETXABALETA
**> Debekatuta badago ere, Arrasate eta Aretxabaleta arteko saihesbidetik txirrindulariak ibiltzen dira**

Arrasateko irakurle batek haserre deitu digu Arrasate eta Aretxabaleta arteko saihesbidetik txirrindulariak ibiltzen direlako: "Jakina denez, azkenaldian obretan daude. Lanen eremura sartu aurretik, txirrindulariak handik igarotzea debekatzen dituzten seinaleak daude, argi eta guzti. Baina, askok ez dituzte horiek errespetatzen eta berdin pasatzen dira handik. Obrak direla-eta, tarte hori oso arriskutsu dago; bereziki, txirrindulariendako".

ARETXABALETA
**> Zapatuan Udalak antolatutako Hip-Hop jaialdiaren harira, pozik dagoen gazte aretxabaletarra**

Aretxabaletako gazte batekin egon gara eta esan digu oso pozik dagoela Udalak Hip-Hop jaia antolatu duelako. Hip-hop eta Break dance ikuskizunez gain, goizeko tailerrak nabarmendu ditu. Udalari horrelako jaialdi gehiago antolatzeko ere eskatu dio.

OÑATI
**> Hilaren 6tik Usakon sorosle zerbitzua egongo da**

Oñatiar batek posta elektronikoa bidali digu udako hilabeteotan Usakon sorosle zerbitzuaren harira, bere iritzia emateko: "Igerilekuan edo hondartzan bezala, Usakon ere soroslea egon behar da. Istripu baten aurrean, sorosleak baino ez daki kasu horretan zer egin behar den".

## usteak uste

**Miren Arregi**

# Legeak eta soziologia, bat

Oñatiko Lege Soziologia Institutuak 20 urte bete ditu, eta mundu guztiko herrialdeetako jurista zein soziologian adituak izan ditugu herrian aste osoan.

Oñatiko institutua oso garrantzitsua ei da; nazioartean erreferente. Baina jakin izan dute Institutuak eta herriak bien arteko lotura bat eratzen? Esango nuke ia ziur, herritarren ehuneko handi batek, ez dakiela Lege Soziologia Institutuak zertan lana egiten duen. Hogei urteko fruituak eta gero, 250 lagun etorri behar izan dira guk geuk ere Lege Soziologia zer den zuzenean galdetzeko. Orain badakit zerbait. Epaileen erabakiak eta erabaki horiek hartzeko moduak ipintzen ditu zalantzan lege soziologiak. Epaileen praxia eta balore epaiketak, nahiz eta Espainiako Estatuan zalantza horrek ezertarako balio ez duen irudimena dudan.

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# 'Fiesta'

"Azken urteetan ez da inoiz hain presente egon Ernest Hemingway San Fermin jaietan. Harek Iruñeara egin zuen azken bisitaren 50. urteurrena bete dela-eta, Hemingwayen arrastoa oso agerian gelditu da Iruñeako taberna, txoko eta bazter askotan. Eta horrez gain, lehiaketa ere egin zuten".

El Diario Vasco > 2009-07-10


LA HUELLA DE HEMINGWAY

Eguneroko penak eta etsipenak arintze aldera, San Fermin usaiñian nator gaurkuan. Joan dan astian Hemingway idazle amerikarrak Iruñara egin zeban azken etorrialdixaren berrogeta hamar urtiak dirala eta, hedabide guztietan egin da urteurren horren aittamena.

Oso jakiñeko kontua da Hemingwaik euskal jendiakin harreman polit-polittak izan zittuala bai Ameriketan eta bai Euskal Herrixan bertan. Jakiñeko kontua da, era berian, Iruñako, San Fermiñetako eta zezenketetako berrixak eta xehetasunak zorrotz-zorrotz emoten dittuala.

*The sun also rises* da Iruñako San Fermiñetan giro gorixa hain era dotorian jasotzen daben nobelia. Halako errelismoz dago idatzitta, eze dokumental baten itxuria daukola.

Jakiñeko kontu zaharretan aurrera egiñez, gañeratuko dot idazlana 1927xan argittara emon zebanian inglesezko tituluarekin egin zebala, *Fiesta* izenpian emon ala ez ezbaixa egin ondoren, gero erderazko itzulpenak erabilli dabena.

**"Hemingwayk 'vascos' bakarrik ikusten dittu, nafarrik ez"**

**"Miguelico Sanzek irakurritta ete dauka 'Fiesta'?**

*Fiesta*-k San Fermiñetako marka eta koska ezagun guztiak jasotzen dittu: zezenak, atsalde edarrak, *Iruña* kafetegixa, txistua eta danboliña, edana, zerupian egindako gauak; baña Iruñaz gañera, Donostia, Baiona, Biarritz, Orreaga, Irati... eta beste, hantxe dare maitasun edarrez aittatuta.

Miguelicok -ez, ez da mihura bat-, Miguelico Sanz Naparruako presidentiak, orain Patxico lehendakarixaren lagun politikua danak, irakurritta ete dauka *Fiesta*? Eta begixak gorrittu barik lortu ete zeban hasi eta akabatzia?

Hemingwayk Donostiako, Baionako eta Iratiko inguru guzti-guztiak *vascos* beterik ikusten dittu! Nafarrik ez dau aittatzen, gaiñera! Akaso daltonikua ete zan Hemingway, zezenak ei diran letxe?

Gero, *Fiesta*-ko edukiña aittatzeko eta aztertzeko lanetan, papelian zein Interneten, *vasco-navarro* moduko enplastuak erabili dittuzte jakittun moderno askok. Hemingwaik ez zeban halakorik egin.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mirian Biteri, Xabier Urtzelai, Miren Arregi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Jolasparkea estreinatu dute astean Zerrajeran, eta laster beste lau egingo dituzte > 14



**>BERGARA**
Boluko hiru igogailuren egiturak abuzturako bukatzea aurreikusi dute > 17



**> ELGETA**
Arantzeta abizena dutenen topaketan 150 lagun batuko dira gutxienez > 20



Eskoriatza Industrialdeko lokalak ez dira saltzen, eta egoerari irtenbidea emateko, Debagoieneko Industrialdean sartzea nahi du Udalak. M.B.

**ESKORIATZA** > EKONOMIA

# Debagoieneko Industrialdearen esku gera daiteke Torrebaso udazkenean

**UDALA LANEAN**
Udalak lanean dihardu aspalditik Debagoieneko Industrialdean sartzeko

**2008KO KONTUAK**
Joan den eguenean, batzar orokorra egin zuten 2008ko kontuak onartzeko

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Joan den eguenean Eskoriatzako Industrialdearen batzar orokorra eta ezohiko osoko bilkura urgentea egin zuten. Batetik, 2008. urteko kontuen berri jaso eta onartu zituen udalbatzak. Bestetik, abuztuan ordaindu beharreko krediturai oniritzia eman zion.

Kontuei dagokionez, gastuak eta diru-sarrerak kontuan izanda, Eskoriatzako Industrialdeak, joan den urtean, 61.616,23 euroko emaitza negatiboa izan zuela jakinarazi zuen administrariak. Horrekin batera, jakinarazi zuen, 2008ko abenduan, bankuarekin zuen mailegua 1.817.641 eurokoa zela. Horren harira, administrariak zehaztu zuen, epe luzeari begira, 1.415.504,19 euro zor dizkiola Industrialdeak; eta aurten, guztira, 402.137 euro ordaindu behar direla. Udalarekin daukan zorra, berriz, 1.365.020 eurokoa dela aipatu zuen. Administrariak gaineratu zuen oraindik saldu barik dauden lokalek eta lursailek 2.981.455 euro balio dutela.

**EGOERAREKIN ARDURATUTA**

Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabaster Industrialdearen egoerarekin arduratuta azaldu zen. Gogorarazi zuen 2008ko udaberrian, Udala horren gaineko publizitatea egiten hasi zenean, lokaletan interesa dutenen deiak jasotzen zituztela egunero.

Udako oporren ostean, baina, krisi ekonomikoa iritsi zen gurera eta horrek dena aldatu zuen. Oso jende gutxik galdetzen du gaur egun lokal horien gainean. Esandako lokalak ez dira saltzen eta horrek Udalaren egoera ekonomikoa nabarmen konplikatzen ari da, bankuari hiru hilez behin kredituak berdin ordaindu behar dizkio-eta.

**DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA**

Horren aurrean, irtenbidea bilatzen dabil aspalditik Udala. Asmoa da Eskoriatzako Industrialdea Debagoieneko Industrialdean sartzea. Horrela, horko parte izateaz gain, banketxeekin dituen zorrak kenduko lituzke. Debagoieneko Industrialdearen jabetza hiru zatitan dago banatuta orain: Eusko Jaurlaritzako Sprilur enpresak, %51 du; eta Gipuzkoako Diputazioak eta Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udalek, gainontzekoa. Udazkenean horri Eskoriatzako Udala gehitzea espero du alkateak.

**ARRASATE** > SANTA MARINAKO JAIAK

# Askotariko ekintzak, Santa Marina auzoko jaietan


Bolo-palma txapelketa, Santa Marina. JOSETXO ARANTZABAL


Umeek gozatu egin zuten puzgarriekin. JOSETXO ARANTZABAL

**Ekintza asko eta askotarikoak egin dituzte asteburuan Santa Marina auzoko jaietan; ume, gazte zein heldu, guztiak ibili dira gustura**

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Arrasateko Santa Marina auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan. Adin eta gustu guztietarako ekintzak antolatu ditu auzoko batzordeak; hala nola, umeendako jolasak, txarangak, fanfarreak, bazkariak, orkestrak...

Berrikuntzak ere izan dira. Hain justu, 17 auzotarrez osatutako Batukada talde bat eratu berri dute, eta horiek aritu ziren auzoa girotzen zapatuan eta domekan. Auzoko bolatokian bolo-palma txapelketa ere egin dute, eta, jakina, gastronomiak ere izan du tokia auzoko jaietan. Gainera, lehenengoz, Nafarroako jotak eskaintzen dituen talde bat ere izan zen.

Antolatzaileek gustura gelditu dira; eguraldiak lagundu du, eta baita herritarrek ere.


Umeendako jolasak ere izan ziren. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > TRIANAKO JAIAK

# Jaia ekarri du beste behin Astotrastok, Triana auzora

**30. edizioa izan dute aurten jaiek eta beste behin, ez da jolas, musika, jairik... falta izan**

**M.A** > ARRASATE

Pozik daude antolatzaileak hiru egunotan Trianan izan duten giroarekin. Eguraldiak lagundu duela eta herritar asko hurbildu dela esan digute. Astotrasto astoa da Trianako ikurra, eta haren jaitsierak eman zion hasiera egubakoitzean, hiru egunetan luzatu den festari. Umeendako jolasak, txokolatada, erromeriak, Madalena auzokoekin anaitzeak, bazkari herrikoiak eta beste asko izan dituzte.

Bestetik, domeka goizaldean gazte batzuk izan zuten jarrera eskasa salatu dute eta jaiekin zerikusirik ez zutela gaineratu.

RENAULT

San Andres auzoa 8 ARRASATE
943 71 24 72

AUTOBERRI



www.renault.es/concesion/autoberri


**Espace** 17.000 €
**Motorea:** 1.9 dci
**Urtea:** 2004
**Kilometroak:** 100.000


**Megane Sedan Confort Expresion** 17.000 €
**Motorea:** 1.5 cc 105 zp
**Urtea:** 2007
**Kilometroak:** 6.000


**Megane Confort Expresion** 12.000 €
**Motorea:** 1.5 cc 105 zp
**Urtea:** 2007
**Kilometroak:** 6.000


**Grand Espace** 26.900 €
**Motorea:** 2.0 150 zp
**Urtea:** 2007
**Kilometroak:** 9.500

| Modeloa | Km | DATA | PREZIOA |
|---|---|---|---|
| CLIO III | | | |
| CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 ZP 5 ate | 21.100 | 2006 | 11.500,00 € |
| Clio III EMOTION 1.5 85 ZP 5 ate | 15.000 | 2008 | 11.900,00 € |
| Clio III EMOTION 1.5 85 ZP 5 ate | 6.572 | 2008 | 12.500,00 € |
| CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 ZP 5 ate | 9.800 | 2007 | 12.500,00 € |
| CLIOIII PAC DYN 1.5DCI 85 ZP 3 ate | 10.000 | 2007 | 13.000,00 € |
| CLIOIII CON DY 1.5DCI 105 ZP 3 ate | 100 | 2007 | 14.250,00 € |
| ESPACE IV | | | |
| ESPACE 1.9 DCI EXPRESSION 5 ate | 110.000 | 2005 | 17.000,00 € |
| ESPACE N EXPRESSION 2.2 DCI 16 V | 84.375 | 2006 | 18.500,00 € |
| ESPACE 1.9DCI EXPRESSION 120 ZP | 27.500 | 2006 | 19.500,00 € |
| GRAN ESPACE EMOTION | 9.500 | 2007 | 26.900,00 € |
| KANGOO | | | |
| KANGOO COMBI 4X4 1.6 16 V 95 ZP | 18.000 | 2007 | 13.000,00 € |
| KANGOO Furgón Confort 1.5 DCI | 122.000 | 2007 | 7.500,00 € |
| KOLEOS | | | |
| KOLEOS DY PK2 2.0 DCI 150 ZP 4X2 | 19.850 | 2008 | 24.900,00 € |
| LAGUNA II | | | |
| LAG2 EX 1,9 DCI | 150.000 | 2001 | 5.500,00 € |
| LAGUNA II PRI 1.9 DCI 130 ZP | 105.000 | 2004 | 10.300,00 € |
| LAGUNA G.T.1.9DCI Con.Dyn.120 5 ate | 117.586 | 2005 | 11.500,00 € |
| LAGUNA II CON EXP 1.9 DCI 130 C | 25.100 | 2006 | 12.800,00 € |
| LAGUNA FAM II EXP 1.9 DCI 120 ZP | 65.700 | 2006 | 14.500,00 € |
| LAGUNA III | | | |
| N. LAGUNA III DYN 2.0 DCI 150 ZP | 10.500 | 2007 | 24.500,00 € |

| Modeloa | Km | DATA | PREZIOA |
|---|---|---|---|
| MASTER | | | |
| MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC | 164.500 | 2006 | 12.000,00 € |
| MASTER FURGON 35 LS 2.5 D | 174.218 | 2006 | 12.500,00 € |
| MEGANE II | | | |
| MEGANE II Dynamic 1.5 DCI 85 ZP | 22.699 | 2008 | 12.000,00 € |
| MEGANE II Privilege 1.9 DCI 130 ZP | 27.124 | 2007 | 13.500,00 € |
| MEGANE 1.5dCi C.Expres. eco2 5 ate | 23.300 | 2007 | 11.500,00 € |
| MEGANE II 5P CONFORT DYNAMIQUE 1 | 22.500 | 2008 | 13.300,00 € |
| MEGANE II 5P DYNAMIQUE 15DCI 85C | 19.200 | 2008 | 13.500,00 € |
| MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 3 ate | 16.954 | 2006 | 13.500,00 € |
| MEGANE II CON EX 1.5DCI 105 3 ate | 100 | 2008 | 14.000,00 € |
| MEGANEII 1.5 D DYNAMIQUE 5 ate | 6.000 | 2008 | 14.300,00 € |
| MEGANE II CON DY 1.5DCI 105 5 ate | 7.000 | 2007 | 15.200,00 € |
| MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 5 ate | 100 | 2008 | 16.000,00 € |
| MEGANE III | | | |
| Nuevo Megane Berlina Expression | KM0 | 2008 | 15.900,00 € |
| Nuevo Megane Berlina Expression | KM0 | 2009 | 16.000,00 € |
| Nuevo Megane Berlina Dynamique d | KM0 | 2008 | 18.000,00 € |
| MEGANE SEDAN | | | |
| MEGANE II SEDAN | 6.000 | 2007 | 11.000,00 € |
| MEGANE SEDAN II | 10.500 | 2.007 | 11.000,00 € |
| SCENIC | | | |
| SCENIC II CON EXP 2.0DCI 150 ZP | 150 | 2007 | 17.000,00 € |
| GRAN SCENIC II 7PL | 12.547 | 2007 | 17.500,00 € |
| BESTE MARKAK | | | |
| PT Cruiser 2.0 16 V Touring 5 ate | 40.500 | 2002 | 8.300,00 € |
| León 1.9 TDI Sport 5P | 138.000 | 2004 | 9.900,00 € |
| Astra 1.9 CDTi Cosmo 5 ate | 76.593 | 2005 | 11.500,00 € |

**bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran**
kontsultatu gure motore eta ekipamendu aukerak.
Unitate mugatuak. Finantziazio aukera zabalak. Galdetu lasai.

Bonua aurkeztu

**%10EKO DESKONTUA TAILERREAN**
Promozioa 2009ko irailaren 30ean bukatuko da.
Auto bakoitzeko bono bat. Deskontu ez metagarria beste promozio batzuetarako.

Bonua aurkeztu

**ANTZUOLA** > ERRETIRATUAK

# Jaia egin zuten atzo, elkartearen 25. urtemuga dela-eta

## Antzuolako pentsionisten eta erretiratuen elkarteak urteurrena ospatu zuen

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA

Egun ederra pasa zuten atzo, domeka, Antzuolako erretiratuek. Urtero moduan, herriko jaiak baino lehen, bazkaria egiteko ohitura dute han. Aurtengoa, baina, berezia zen elkarteak zilarrezko ezteiak bete zituelako.

Bazkaldu aurretik, ekitalditxoa egin zuten. Eskolako etxabean egon ziren, besteak beste, Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteko presidente-ordea eta bokala, Inazio Goikoetxea eta Ernesto Arranz, hurrenez hurren; Debagoieneko erretiratuen elkarteko presidente Jose Riviere; eta Antzuolako Landatxope erretiratuen elkarteko presidente Florentino Lamariano. Azken horrek urteurrena gogorarazten zuen plaka bat jaso zuen.

**150 LAGUN BAZKARIAN**

Jarraian, bazkaria egin zuten. Guztira, 150 lagun inguruk parte hartu zuten horretan. Eta eguna behar bezala amaitzeko, dantzaldia izan zuten. Jaialdia amaitzear zegoela, Lamarianok dena aurreikusi behar irten zela azpimarratu zuen.



Lamariano, bazkarira joan zirenei berba egiten. JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > IRRATIA

## Irratizaleen topaketa Bedoñan

Arrasate Irratizale Kultura Elkarteak deituta, hamar bat irratizale elkartu ziren Bedoñan, irrati probak egiteko. Hainbat herrialderekin konexioa egin zuten, besteak beste. Antolatzaileek esan digute esperientziarekin gustura geratu badira ere, aukeratutako tokiarekin ez zutela guztiz asmatu, elizak uhinak ondo harrapatzea oztopatzen zuen-eta. Bedoñako bizilagun batek, baina, eremu egokiagoa erakutsi zien hurrengorako. Horren harira, elkarteak eskerrak eman gura izan dizkie hango auzotarrei.

**BERGARA** > MUSIKA

## Bergarako Orfeoiak kantua kalera atera zuen

Aitor Biainek zuzendutako taldeak ordu erdiko saioa eskaini zuen Domingo Irala kalean; txalo zaparrada hainbat jaso zituen

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Jende mordoa batu zuen zapatuan Bergarako Orfeoiak kalean eskaini zuen kontzertuak. Domingo Irala kalea izan zen agertokia eta terrazak, bankuak zein kale izkinak, ikuslegoaren kokalekua. Ordu erdi inguruko saioan, errepertorio anitz eta zabala landu zuten; abestu zituzten euskal kantak, irlandar, gospel eta jazz doinuak eta baita habanerak ere. Txalo ugari jaso zituzten.



Aitor Biainek zuzentzen duen Bergarako Orfeoia kalean, kontzertuan. J. ARANTZABAL



**ZERBITZUAK** >ZERRAJERAKO JOLASPARKEA

# Zerrajera ingurukoek badute non jolastu

## Jolasparkea estreinatu zuten joan den astean Zerrajeran; eta laster, beste lau egingo dituzte

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko neska-mutikoek badute herrian beste jolasparke bat: Zerrajerakoa; bestelakoen artean, zailtasunak dituztenendako egokitutako gunea duena.

Horrez gainera, aipatzekoa da, baita ere, parkearen estreinaldia arrakastatsua izan dela; izan ere, jolasparkea erabilgarri ikusi bezain laster estreinatu dute herritarrek, inguruko hesiak kendu aurretik; eta hasierako egunetan ilarak eta guzti sortu dira zenbait ziburutan. "Hori bai, ikusi egin behar da eguzkiak jotzen duenean zer gertatuko den", esan du guraso batek. Izan ere, Santa Barbarako jolasparkeak bezala, Zerrajerakoak ez dauka inolako gerizperik. Horren gainean galdetuta, Udaletik emandako azalpenen arabera, inor ez da horren gaineko kexurik aurkeztera joan eta, oraingoz, ez dago aurreikusita zuhaitzik ipintzerik jolasparkean.



**ILARAN** Neska-mutikoak Zerrajerako kulunketako baterako ilara itxaroten. U.M.

**ARRASATEKO IKURRAK**

Kontuak kontu, estreinatu dute jolasparkea, eta, beste ezaugarrien artean, nabarmen daiteke itxuran ere Santa Barbarakoaren antzerakoa dela, Arrasaterekin zerikusia duten elementuak dituela: adibidez, Zerrajerako giltzen marrazkiak edo gaztelu itxura duen dorrea.

**ZAILTASUNAK DITUZTENENDAKO**

Horrez gainera, bi gune ditu parke berriak: bata irisgarria da. Gune hori edozeinek erabili ahal izango du, baina egokituta dago zailtasunak dituzten umeendako; beste gunea, berriz, 7-13 urteko umeendako gunea da.

Gune irisgarriari dagokionez, hark ditu, besteak beste, kulunka bat eta ibilbide handi bat. Eta ibilbide horrek ditu, besteak beste, etxetxoak eta txirrista tutuarekin. Gune arruntak, berriz, ditu dorre handi bat, tutuak eta kulunkak, besteak beste.

87.000 euro inbertitu ditu Udalak jolasparke horretan.

**BESTE LAU PARKE**

Bestalde, beste lau parke ere eraikiko ditu Arrasateko Udalak: Bedoñan (berria, eliza parean, 2-8 urtekoendako); Makatzenan (aparkalekuaren gainean, lehenago jolasparkea zegoen lekuan (4-12 urtekoendako); Uriben (orain dagoena aldatuko dute, 4-12 urtekoendako); eta pertsona nagusiendako parke bio-osasuntsua. Bada, Zerbitzu Sailetik kontatutakoaren arabera, lau horiek ere "aurki" ipiniko dituzte.

### oharrak

POLITIKA
**>EAren herri batzarra**

Datorren eguaztenerako, uztailaren 15, hitzordua egin dute Eusko Alkartasunaren Arrasateko egoitzan, herri batzarra egiteko. Helburua da joan den ekainaren 20an eta 21ean EAk egindako ezohiko kongresuan landutakoaren berri ematea. Hitzordua da 19:00etan.

ABAROA
**> Bizkaira irteera**

Balmaseda ingurura txangoa antolatu dute Abaroakoek datorren uztailaren 22rako. Besteak beste, Enkarterrietako museoa bisitatuko dute eta Portugaleten ibiltzeko denbora librea ere izango dute. Txangora joan gura duenak uztailaren 15ean eman beharko du izena, 10:30ean, Abaroaren bulegoetan. 24 euro da txangoaren prezioa. Antolatzaileek iragarritakoaren arabera, bi autobus antolatzeko asmoa dute; beraz, jarlekuren bat libre baldin badago, Abaroakoak ez diren nagusiak ere hartuko dituzte.

TXATXILIPURDI
**Lan eskaintza**

Txatxilipurdi elkarteak ludoteka eta gazte txokoetan lan egiteko hezitzaileak behar ditu 2009-2010 ikasturteari begira. Eskatzen dutena da euskara maila handia izatea eta lanean inplikazioa eta motibazioa. Baloratuko dute hezkuntzarekin lotutako ikasketak izatea edo ikasten jardutea, eta esperientzia.

**ETXEBIZITZAK** > LA CAIXA

# Azalpenak eskatu eta hitzartutakoa betetzeko eskatuko dio Udalak La Caixari

## La Caixako etxebizitzengatik eskatutako errentak Udalarekin hitzartutakoak baino handiagoak direla diote

**T.M. / U.M.** > ARRASATE

Azalpenak eskatuko dizkio Arrasateko Udalak La Caixari, Zerrajera-guneko etxebizitzen harira. Alternatiba-Zutik koalizioak errekerimendua egin die alkateari eta Hirigintza Sailari, etxebizitza horiekin lotuta azalpenak eska ditzaten. Hain justu, hiru konturen gaineko azalpenak eskatu ditu koalizio ezkertiarrak.

Batetik, salatu du etxeon gehienezko errenta 260 bat eurokoa izan beharko litzatekeela 2009an, eta aldiz, 340 euroko errenta eskatu dietela maizterrei. Besteak beste, kontribuzio eta komunitate gastuak gehituta.

Bigarren salaketa da La Caixarekin sinatu beharreko kontratuaren arabera, maizterrak derrigortuta daudela euren nomina edo pentsioa La Caixan izatera. Koalizioak dio hori ez dela Udalarekin hitzartutakoa. Eta uste du bidezkoa ere ez dela.

Eta hirugarren salaketa da arrendamendu kontratuaren luzapenarekin lotutakoa. Izan ere, berez, La Caixak eta Arrasateko Udalak adostu zuten etxebizitza horien kontratua bost urterakoa dela, baina luzatu egin daitekeela Jaurlaritzak finkatutako baldintzak betez gero.

Ba, koalizio ezkertiarrak salatu du La Caixaren arabera kontratua bakarrik luzatu ahal izango dutela 65 urtetik gorakoek.

**OKER DAUDENAK ZUZENTZEKO**

Arrasateko alkateari gai horren gainean galdetuta, Galparsorok jakinarazi du azalpenak eskatuko dituztela eta ikusten badute Udalaren eta La Caixaren artean hitzartutakoa ez dela betetzen, "betearazi" egingo dutela; "eta oker daudenak zuzentzeko eskatzeko asmoa ere badugu", gaineratu du alkateak.

**KONTU KORRONTEA IZAN BEHAR**

Bestalde, Alternatiba-Zutik koalizioak etxeon errentaren harira esandakoarenari erantzunez, alkateak zera dio: "Baldintza ekonomikoetan Alokabidek planteatzen dituen baldintza berak daude adostuta, eta ez daukat konstantziarik hori ez denik betetzen. Hala ere, azalpenak eskatuko ditugu eta ikusten bada ez dela betetzen, betearazi egingo ditugu".

Pentsioa edo soldata domizializatzeko eskaera dela-eta, alkateak azpimarratu du "hitzartutakoaren arabera, La Caixan zabaldutako kontu korrontearen bitartez" ordaindu beharko dela errenta, eta argi utzi gura izan du "ezin" diotela "inori exijitu han domizializatzea".



La Caixako etxebizitzetan sartu dira dagoeneko aurreneko maizterrak U.M.

Bukatzeko, alkateak dio orain arte ez dutela inolako "salaketa formalik jaso, kenduta Alternatiba-Zutikek aurkeztutakoa".

**JENDARTEA** > HARITZA BOTA DUTE SANTA MARINAN

# Gernikako Arbola jatorri zuela uste zuten herritarrek haserrea erakutsi dute

Santa Marina auzoko urbanizazio obretako saneamendu lanetan lur jausia egon ostean bota behar izan zuten zuhaitza; jatorriaren inguruan denetariko iritziak daude

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Aste bukaeran jaietan izan den Santa Marinako zenbait bizilagunek euren kexa azaldu zuten joan den astean auzoko urbanizazio obren saneamendu lanetan bota zuten haritza dela-eta.

Zuhaitza Gernikako Arbolaren eskejea zela eman zuten aditzera zenbait bizilagunek, eta inori ezer esan barik bota izana salatu zuten.


Santa Marina auzoko urbanizazio obretako saneamendu lanetan bota zuten haritza. LARRAITZ ZEBERIO

ESANAK

**"Zuhaitza eusteko aukera zegoen, baina horrek ez zuen ziurtatuko ez zela jausiko; hobe beharrez bota dugu"**
**Juan Antonio Urdangarin** > Udala

**LEHEN ASMOA, HARITZA EUSTEA**
Udalak ez du sekula horren berri izan, eta zuhaitza erortzeko arriskuan zegoela adierazi zuen. Udalak jakinarazi zuen lehen asmoa zela ez kentzea, baina lurra mugitu egin zenez, bertako eta kanpoko adituak eta obra zuzendaritzako arduradun bat batu ziren 20 metrotako haritzarekin zer egin erabakitzeko. Hala, Hirigintza Saileko Juan Antonio Urdangarinek jakinarazi zuenez, "zuhaitza eusteko aukera zegoen, baina horrek ez zuen ziurtatuko ez zela jausiko; hobe beharrez botatzea erabaki dugu". Albistea zabaldu zenean, herritar batek haritza Gernikako Arbolaren eskejea izatea gezurtatu zuen.

**UDALEKUAK** > ARIZMENDI

# Aurten iaz baino 75 gazte gehiago daude

Gaztetxoak Garesera, Acedora eta Otsagira joan dira aurten ere; nagusienak eta ikasle ohiak Santiagora joango dira etzi

**J.B.** > ARRASATE
Arizmendi ikastolak antolatzen dituen udalekuak inoiz baino arrakastatsuagoak izan dira aurten. Izan ere, 475 ikaslek eman dute izena guztira, hau da, iaz baino 75 ikasle gehiago. Ikasleek zazpi arduradun nagusi eta hainbat begiraleren laguntza izango dute.

Bost urtekoak eta lehen, bigarren eta hirugarren mailakoak Garesera joan dira txanda ezberdinetan, eta laugarren eta bosgarren mailakoek Acedo ezagutuko dute. Bi udaleku hauetan igerilekua izango da oinarri eta bertan hainbat jolas egingo dituzte. Eta ez hori bakarrik, tailer, eskulan eta irteeretarako tartea ere hartuko dute, ingurua ezagutzeko.

Seigarren mailakoak, bestalde, Otsagin egongo dira eta DBHko lehen zikloko ikasleak, berriz, Zuriza aldean ibiliko dira. Azken hauek naturari lotutako jarduerak egingo dituzte; hala nola, mendi irteerak, eskalada edo erreka jaitsierak.

**66 IKASLE SANTIAGORA**
Azkenik, eguazten honetan DBHko bigarren zikloko ikasleak, batxilergoa egiten dihardutenak zein ikasle ohiak Santiagora bidean jarriko dira. Ibilbidea bizikletaz egingo dute, uztailaren 24ra bitartean.


TXATXILIPURDI

## Entzierro garbia eta azkarra egin zuten gaztetxoek

San Juan eguneko entzierroa baino korrikaldi azkarragoa eta garbiagoa –ez zen jende pilaketarik izan– egin zuten gaztetxoek Txatxilipurdik urtero udaleku itxietan antolatzen duen San Fermin txiki egunean. Hainbat gaztetxok egin zuten korrika eta ibilbidea urterokoa izan zen. Hau da, Iturriotz kaletik hasi eta erdiko kaletik bueltan Herriko plazan amaitu zuten. Zezenak ondo portatu ziren, eta gaztetxoren bat edo beste gertu izan bazuten ere, ez zuten inor zauritu.

JENDARTEA > ELKARTASUNA

# Zapatuan iritsi ziren bost ume saharararrak uda hemen igarotzeko

Bubisher elkartearen bitartez etorri dira: bik Bergarako familiatan emango dute uda; beste bik, Antzuolakoetan; eta batek Elgetako familia batekin

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Zapatuan iritsi ziren ume saharrarrak gurera. Bubisher elkartearen bitartez etorri dira, udako oporraldia bertoko familiekin batera igarotzera.

Bost ume etorri dira eta hemen egongo dira iraileko lehenengo astera arte. Bik emango dute uda Bergarako familia banatan; beste bik, Antzuolako familiatan; eta batek Elgetako familia batekin igaroko ditu oporrak.

**AZKENEKO URTEA**

Etorri diren bost umeak –lau neska eta mutil bat– aurrez ere hemen egondakoak dira. Bergarara etorri direnei dagokienez, 9 eta 12 urte dituzte; Elgetara joan direnek, berriz, 11 eta 12 urte; eta Antzuolara joan denak, 11.

Egitasmo horretan parte hartzen dute 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek. Hori horrela, aurten etorri diren 12 urteko gaztetxoendako azkeneko urtea izango da.

**UDALAK HARRERA EGINGO DIE**

Urtero bezala, Udalak harrera egingo die Tindufeko kanpalekuetatik –zein Ukrainatik– etorritako umeei; hain justu, ongietorri jaia egingo die. Egubakoitzean, hilaren 17an, izango da, 19:00etatik 20:00etara, San Martin plazan. Ongietorri jaian Jardun elkarteak egingo ditu aurpegia margotzeko tailerra, eskulanak, jolas kooperatiboak eta kantu jolasak.

Gainera, deialdia herriko ume guztiei zabaldu nahi die Udalak eta guztiak gonbidatuta daudela azpimarratu dute.

**TINDUFETIK DEBAGOIENERA**

Neska-mutikook Tindufeko kanpalekuetan bizi dira, Aljerian. Oso ingurune lehor eta beroa da; udan 40 gradutik gora egoten dira. Hori horrela, eta umeak oporretan daudela kontuan izanda, bada, uda beste leku freskoago batzuetan igarotzeko aukera eskaintzea da Bubisherren egitasmoaren helburuetako bat.

Horrekin batera, gizartea umeon egoeraren berri jabearazteko modua ere badela azpimarratu dute askotan elkarteko kideek.

LEHIAKETA

## Azokako paretarako grafiti lehiaketa

M.B. > BERGARA

Udaleko Kultura Sailak deitu du eta helburua da azokan hutsik dagoen 7,05x8,2 neurriko pareta margotzea. Hala, lehiaketara aurkeztutako lanen artean epaimahaiak aukeratutako grafitia margotuko dute egileek pareta horretan. Grafitiaren zirriborroa aurkeztuko da 34x29 cm-ko neurrian, formatu bertikalean eta euskarri gogorrean. Era berean, CDan ere aurkeztu beharko da. Aurkezteko azken eguna da hilaren 27a, kultura etxean edo *kultura@bergara.net* helbidean.

## Mizpirualdeko egoiliarrek Altzasun bazkaldu zuten

Aurreko zapatuan Altzasura gonbidatu zituzten bazkaltzera Mizpirualdeko egoiliarrak. 47 aitaita-amama joan ziren eta oso ondo igaro zutela esan dute. Gainera, bazkaldu eta gero, Aritzeta abesbatzaren saioa izan zuten, eta baita soinu-jotzaile eta bestelako abeslari batzuena ere. Altzasu elkarteak urtero gonbidatzen ditu bazkaltzera. Hori horrela, eskerrik beroenak eman nahi dizkiete egoiliarrek zein egoitzako arduradunek.




GOIENKARIA

KIROLA > DIRULAGUNTZAK

# INEMek lagundutako lanpostuetarako azterketak, asteon

Lorategietako, pintura lanetarako eta igeltserotzako peoi eta ofizialak kontratatuko ditu Udalak, guztira sei lagun, sei hilabeterako

M.B. > BERGARA

Udalak 2009ko enplegu sustapeneko programa jarri du martxan eta sei lanpostu betetzeko deialdia egin du; hain justu, lorategietako, pintura lanetarako eta igeltserotzako peoi eta ofizialak kontratatu nahi ditu.

Dagoeneko kaleratu dituzte onartutakoen zerrendak –*www.bergara.net* helbidean ikus daitezke–. Hori horrela, jakinarazi dute INEMek diruz lagundutako kontratazioetarako aukeraketa probak egingo direla ondoko egunetan: lorategietako peoi eta ofizial bana kontratatzeko azterketa izango da datorren martitzenean, uztailaren 14an, 08:00etan. Pintura lanetarako bi peoi kontratatzeko azterketa, berriz, datorren martitzenean, uztailaren 14an, 11:00etan eta igeltserotzako peoi eta ofizial bana kontratatzekoa, berriz, eguenean, uztailaren 16, 08:00etan.



Irudian, lorezainak Irizar jauregiko lorategiko zuhaixkei forma ematen. GOIENKARIA

**BALDINTZAK BETE BEHAR DIRA**

Horrekin batera, Udaletik gogora ekarri dute eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenak –eskola ziurtagiria izatea, Bergaran erroldatuta egotea gutxienez azken urtean...– ez direla kontratatuko eta baztertuak izango direla, nahiz eta probak pasatu. Hala, oinarriak ez dituztenek idazkaritzan eskura ditzakete.

Euskara probari dagokionez, astean barrena emango dute aditzera eta udaletxeko iragarki taulan jarriko dute.

**AZPIEGITURAK** > BOLUKO IGOGAILUAK

# Boluko hiru igogailuren egiturak abuzturako bukatuko dituzte

Aurrera doaz Bolurako lau igogailuetako lanak: irailean hasiko dira altxaera plaka eta beirak jartzen igogailuetako hiruri; laugarreneko lanak irailean hasiko dituzte


Errepide nagusia Koldo Eleizalde kalearekin lotuko duen igogailua. Ondoko eskailerak ere berritzen dihardute. MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Boluko auzotarren irisgarritasuna bermatzeko eraikitzen dihardute igogailuetako lanak abiadura onean doaz. Lau igogailu egingo dituzte eta dagoeneko hiruren lanak aurreratuta daude, Zetabi Arkitektura Bulegotik –proiektua egin duen bulegoa eta baita obren zuzendaritza daramana ere– azaldutakoaren arabera.

**HIRU IGOGAILUTAN LANEAN**
Lanak hasi zituzten Santa Ana parkea Bolu kalearekin lotuko duen igogailuarekin, maiatzean, eta Artzamendi eraikuntza enpresa ari da egiten. Dagoeneko, hormigoizko egitura bukatuta dago eta orain egitura metalikoarekin dihardute.

Errepide nagusia Koldo Eleizalde kalearekin lotuko duen igogailuari dagokionez, Santa Anako igogailuaren ia epe berean hasi zituzten lanak. Igogailua egiten dihardute eskaileren ondoan eta horiek ere berritzen dihardute. Igogailuari dagokionez, hormigoizko egitura bukatu dute. Eskaileretako lanei dagokienez, berriz, aldaketa bat egon da: proiektuak eskaileren beheko zatia bota eta berriak egitea aurreikusten bazuen ere, gainerakoak ere egoera txarrean daudela ikusi dute eta guztiak berritzea erabaki dute.

Hirugarren igogailua –Bolu kalea Beart elkartearen egoitza dagoen gunearekin lotuko duena– egiteko lanak ere hasita daude... Hango eskailerak eraitsi egin dituzte eta zoru berria egin dute. Igogailuaren egiturarekin laster hasiko dira.

Zetabiko arkitektoek aurreikusten dute hiru igogailuon egiturak abuzturako erabat bukatuta egotea.

Igogailuak eraikitzeko lanekin batera oinarrizko hiri azpiegiturak –telefonia, argindarra, argiteria...– ere proiektura egokitu dituzte.

**HURRENGO URRATSAK**
Zetabitik aurreratu dutenez, irailean hasiko dira igogailuei altxaerako plaka eta beirak jartzen. Bestetik, Koldo Eleizalde eta Iraburu kalea lotuko dituen laugarren igogailua eraikitzen ere irailean hasiko dira. Igogailuarekin hasi aurretik eustorma egin behar dute.

## oharrak

TXOSNAK
**> San Martin jaietan txosnak hartzeko deialdia egin du Udalak**
San Martin plazan eta Seminarioko patioan jarriko dituen txosnak hartzeko deialdia da. Bergarako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek aurkez ditzakete eskariak. Epea bukatuko da uztailaren 24an, 13:30ean.

IRTEERA
**> San Joxepekoek irteera antolatu dute**
Hilaren 20an egingo dute, Garaio, Maturana eta Otatza artean. Bazkaria Otatzan izango da. Izenematea da elkartearen bulegoan.

DEIALDIA
**> Kultura taldeendako dirulaguntzetarako izenematea zabalik dago**
Irabazi asmorik gabeko taldeendako laguntzak dira. Eskaerok aurkezteko lekua da Udaleko Erregistro Orokorra, astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 ordutegian. Oinarriak *www.bergara.net* webgunean eskura daitezke.

KZGUNEA
**> Uztailean ikastaro gehiago izango dira KZgunean**
Beste zortzi ikastaro egin ahal izango dira uztailean KZgunean: Internet+e-administrazioa; sinadura elektronikoa; *Skype*; *Blogger; Google maps eta earth*; zuhaitz genealogikoa; *Google* tresnak; eta sare sozialak. Informazio gehiago eta izenematea: *tutor.bergara@kzgunea.net* eta 943 76 73 24.

**KIROLA** > DIRULAGUNTZAK

# Kirol talde eta elkarteendako laguntzetarako izenematea abian

Eskaerak egiteko epea amaituko da irailaren 7an; oinarriak eskura daitezke 'www.bergara.net'-en

M.B. > BERGARA
Kirol talde eta elkarteendako 2009ko dirulaguntzen oinarriak kaleratu berri ditu Udalak. Laguntzok dira Bergaran zein Debagoienean –betiere kirol modalitate horretako entitaterik ez badago Bergaran– egoitza duten eta bergararrekin diharduten irabazi asmorik gabeko kirol entitateendako. Bai eskola kirolean, bai guztiendako kirolean zein kirol federatuaren alorrean jarduerak antolatzen dituztela ere kontuan hartzen da.

**BI LAGUNTZA MOTA**
Udalak 2009. urtean 110.000 euro bideratu ditu laguntzotarako: 60.000 euro elkarteen egiturak etarako eta gainerako 50.000 euroak, izaera bereziko edo noizean behineko kirol jardueretarako.

DATUA
**110**
**MILA EURO**
Horixe da Udalak bideratuko duen ditu kopurua: 60.000 euro elkarteen egituraketarako eta gainerako 50.000 euroak, izaera bereziko edo noizean behineko kirol jardueretarako.

Dirulaguntza eskatzen duen taldeak ondoko baldintza orokorrak bete behar ditu: batetik, bergararrekin diharduen irabazi asmorik gabeko kirol entitatea izan behar du; bestetik, dagokien erregistroetan erregistratuta egotea.

**ESKARIAK AURKEZTEKO MODUA**
Eskariak aurkeztu behar dira irailaren 7a baino lehen, horretarako prestatu dituzten inprimakiekin batera. Inprimakiok eskuragarri daude Agorrosin Ekintza Gunean eta *www.bergara.net* helbidean.

Eskaerak aurkezteko ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00, udaletxeko erregistro orokorrean.

Dirulaguntza horien oinarriak eskura daitezke *www.bergara.net* helbidean.


Bergararrekin ari diren irabazi asmorik gabeko taldeendako laguntza da. GOIENKARIA



Cegasa parean biribilgunea egiten dihardute. Ibarratik saihesbidera doan irteera itxita dago autoendako. MIREIA BIKUÑA

**LANAK** > POSTETXE INGURUKO URBANIZAZIOA

# Cegasa pareko biribilgunea egiten hasi dira egunotan

Postetxera joateko Lizaur kalea erabili beharko dute eta saihesbidera irteteko, kanposantuko bidea

Ibarratik saihesbidera dauden sarrera eta irteera itxita daude biribilgunea bukatu arte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Postetxe inguruko urbanizazio lanak aurrera doaz. Une honetan Cegasa parean biribilgunea egiten dihardute, eta postetxe aurrean hasi dira autobus geltoki berria izango den azpiegitura ipintzen eta gunea txukuntzen.

Cegasa aurrean egiten diharduten lanek aldaketak ekarri dituzte zirkulazioan, batez ere postetxera joan gura dutenendako. Unibertsitate etorbidetik postetxera doan kalea moztuta dago; hortaz, derrigor Lizaur kalea erabili beharko dute, Otadui zuhaiztitik edo Aita Madina kaletik sartuta. Irteera, aldiz, kanposantuko igoeratik egin beharko dute, Bidebarrieta kalera edo saihesbide aldera egiteko. "Ibarratik saihesbidera dagoen irteera itxita dago, eta saihesbidetik ere ezin daiteke sartu herri barrura", esan digu udaltzain-buruak.

Bestalde, duela astebete zabaldu zuten Guardia Zibilaren garita parean dagoen sarrera-irteera errepidea. Arrasate aldetik datozenek eta herri barrura sartu gura dutenek –unibertsitatera edo kiroldegira – Ulma parean dagoen sarrera erabil dezakete.

**BERDIN IZATEN DA GEHIENETAN**
Apirilean hasi zituzten postetxe inguruko urbanizazio lanak. Kanposanturako bidearen hasierako biribilgunea egin ondoren, autobus geltokia lekuz aldatuko dute; hain zuzen ere, postetxearen aurrealdean jarriko dute. Alboan komunak jarriko dituzte. Bestalde, Guardia Zibilaren kuartelaren aurreko gunean parkea eta jolaslekua jarriko dituzte. Gainera, Ibarra aldera doan bidegorria pasatuko da bertatik.

Lanok Madrilgo Gobernuak emandako 720.000 euroekin egiten dihardute.

**JAIAK** > DEIALDIA

## Herri Eguneko herri taberna hartzeko deialdia egin dute

**M.B.** > OÑATI
San Migel eta Errosario jaien barruan, urriaren 3an ospatuko duten Herri Eguneko tabernaren ardura hartzeko deialdia egin du Udalak.

Dagoeneko izenemate epea zabalik dago, eta interesa duten taldeek hilaren 20a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean. Deialdia irabazi asmorik gabeko taldeei zuzendu diete; besteak beste, kultura, kirol eta gizarte arloko taldeei. Deialdian parte hartzeko baldintza bakarra bete beharko dute gutxienez 30 laguneko taldea aurkeztea, hain zuzen ere.

**ZOZKETA EGINGO DUTE**
Udalak egindako deialdira talde bat baino gehiago aurkezten bada, zozketa bidez erabakiko dute ardura nork hartuko duen.


Herri Eguneko tabernan taloak egiten dituzte, besteak beste. GOIENKARIA

> OHARRA

### Usakoko sorosle zerbitzua martxan da egunotan

Egubakoitzeko *Goienkaria*-n soroslea hilaren 15etik aurrera egongo zela esan bagenuen ere, dagoeneko hasi dira Igeriketa Lantzen enpresa kideek zerbitzua ematen Hain zuzen ere, hilaren 6an hasi ziren zerbitzua ematen. Zerbitzua emango dute astelehenetik domekara arte, 11:00etatik 20:00etara arte. Dena den, hilaren 15era arte eta iralilaren 1rtik 15era zerbitzua eskainiko dute ordutegi laburragoarekin: 14:30etik 20:00etara arte.

Soroslea egon arren norberak kontuan hartu beharrekoak garrantzitsuak dira, besteak beste, jan eta berehala uretan ez sartzea edo presagainetik salto egitea.

> ORDUTEGIA

### Udako ordutegia dute bi liburutegietan uztailean eta abuztuan

Kultura etxean dauden udal liburutegiek udako ordutegiarekin dihardute lanean. Hain zuzen ere, uztailean eta abuztuan izango dute ordutegi berezia.

Uztailean helduen liburutegia zabalik egongo da astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Baina zapatuetan itxita egongo da. Bestalde, abuztuan, astelehenetik egubakoitzera goizez bakarrik zabalduko dute, 09:30etik 13:30era.

Haurren liburutegia goizez bakarrik zabalduko dute uztailean; hain zuzen ere, astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara. Abuztuan, aldiz, itxi egingo dute hil osoan.

> JAIAK

### Hilaren 29ra arte zabalik, danborrada nagusiko izenematea

Irailaren 28an egingo duten danborrada nagusian parte hartu gura duten danbor-joleendako (18 urtetik gorakoak) eta dantzariendako (1992. urtean jaiotakoak) izenematea zabaldu dute dagoeneko. Hain zuzen ere, hilaren 29a baino lehen eman beharko dute izena kultura etxean edo gaztelekuko informazio puntuan. Izena ematen duten guztien artean zozketa egingo dute irailaren 2an Errekaldeko lokalean, 19:00etan. Egun berean egingo dute lehen entsegua. Hortaz, izena eman duten guztiek egon beharko dute zozketan.

Haurren danborradako azken entseguak irailean egingo dituzte.


Egubakoitzean aurkeztu zuten Errekan Gora jaialdia, Azkoaga Enea hotelean. M.B.

ESKORIATZA > KULTURA

# Bigarrenez egingo dute Errekan Gora jaialdia

## Aldaketarekin dator kultura ekimena: Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du eta ikuskizun kopurua bira murriztu da, egoera ekonomikoa dela-eta

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Errekan Gora jaialdiak bigarren edizioa izango du. Hori bai, joan den urteko egitarauarekin alderatuta, berrikuntzekin dator. Iaz Eskoriatzako Udala arduratu zen uztaileko lau zapatuetan ikuskizunak antolatzeaz, herriko Aitzorrotz eta Elorrioko Arriola kultura elkarteen laguntzarekin.

Egubakoitz arratsaldean, Azkoaga Enea hotelean aurkeztutako egitarauan Aitzorrotz kultura elkarteko kide Dorleta Kortazarrek azaldu zuen elkartea izan dela aurten egitaraua zuzenean antolatu duena, Eskoriatzako Udalaren eta Gipuzkoako Diputazioaren babesarekin; eta Azkoaga Enea hotela, IGEHIK inprimategia eta Urkulu hornidurak enpresaren laguntzarekin.

**"UR EMARI" GUTXIAGOREKIN**
Kortazarrek esan zuen, egoera ekonomikoa dela-eta, jaialdia "ur emari" gutxiagorekin datorrela: "Egin dugun parekoa da erreka bera metafora bezala hartuta, aurtengoa probetxuagoa datorrela, egoeragatik. Dena den, erronkari ilusio handiz eutsi diogu eta bi ekimen antolatu ditugu". Aurrekontua 6.000 eurokoa da. Pedro Lasagabaster alkateak, berriz, egitasmo horren "interesa" azpimarratu zuen: "Horrekin ikuspuntu kulturala ematen zaio herriari". Horrekin batera gogorarazi zuen eskoriatzar guztiendako ekimenak direla.

Esan bezala, bi kontzertu egongo dira. Lehena, zapatuan, hilak 18, egingo dute. Alain Giroux eta J. Louis Mahjun bikotearen emanaldia 23:00etan hasiko da Azkoaga Eneako lorategian. Blues, boggie-woogie, jazz eta rock-and-rollaren mugetan dabil bikotea. Uztailaren 25ean, Elkano Browing Cream taldearen txanda izango da, herriko plazan, 23:00etan.

ESKORIATZA > LANAK

# Aranburuzabala eta Arana kaleak konpontzen hasi dira

## Gaurtik errepidea asfaltatzeari ekingo diote eta hortaz, errepide zatia moztuko dute berriro

M.B. > ESKORIATZA
Espainiako Estatuko Fondoetarako diru laguntza lortu duten proiektuak apurka-apurka gauzatzen ari dira eta orain, hamargarrena eta azken proiektua egiteko garaia heldu da. Joan den astean Aranburuzabala eta Arana kaleetako zoladura eta azaleko drainadura hobetzeari ekin zioten, Arana 3 ataritik Aranburuzabala 32 zenbakira arte.

Eliza aurrealdeko errepidean ipinitako galtzada-harriak kentzen dihardute, jarraian betelana egiteko. Hori dela-eta, eguenean eta egubakoitzean errepidea moztu zuten. Astebururako berriro erabiltzeko moduan utzi badute ere, gaurtik errepidea asfaltatu egingo dutela eta hortaz, bide zati hori itxiko dutela berriro jakinarazi du Udalak. Proiektu horren aurrekontua 140.718 eurokoa da.

**TRAFIKO DESBIDERAKETA**
Errepidea ibilgailuendako moztuta dagoenean bide berriak egokituko dira: Arrasatera bidean doazen autoek Huhezi ondotik Dorleta igaro behar dute (saihesbidearen aldetik) eta Olazar auzotik behera berriro errepide nagusia hartu. Gasteizera bidean doazenek, berriz, San Juan kaletik gorako bidea hartu, Dorleta auzoa erreka ondotik pasa eta handik tren geltoki zaharreko bidea erabiliko dute errepide nagusira irteteko.

**ERDIGUNEKO GELTOKI BARIK**
Kamioiek eta autobusek, bestalde, saihesbidetik joango dira. Hori dela-eta, erdiguneko autobus geltokia baliogabetu eta bi autobus geltoki erabili ahalko dira: Aingeru Guarda pasealekuan, Alza ondoan; eta Intxaurtxuetan.


Eguenean hasi ziren Aranburuzabala eta Arana arteko lanak. M.B.



Kartel irabazlea.

ARETXABALETA > ANDRAMAIXETAKO JAIAK

# Yera Sanchezek irabazi du aurtengo Andramaixetako kartel lehiaketa

M.B. > ARETXABALETA
Aretxabaletako Andramaixetako jaietarako gero eta gutxiago falta da. Horren harira antolatzen hasi diren lehiaketak dira horren erakusle; tartean, jaietan iragartzeko erabiliko den kartel lehiaketarena dago. Horrek dagoeneko irabazlea dauka: Yera Sanchez Moran. Aretxabaletarrak 300 euro irabazi ditu.

Sanchezek esan digu aurten aurreko urteetan baino jende gehiago animatu dela parte hartzera eta hortaz, ez zuela espero lehiaketa irabaztea. Aretxabaletarrak, dena den, badaki esandako lehiaketa irabaztea zer den. Sanchezen esanetan, "kartela betiko estilotik irteten da. Baserritarren jantzitako neskari eman gura izan diot aurten lehentasuna".

Kultura Sailetik azaldu digute aurten 16 lagunek parte hartu dutela eta guztira, 20 kartel aurkeztu dituztela.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA


San Roke ostean barikuan landatu zuten haritzaren ondoan, Luis Mari Arantzeta. L.Z.

**ELGETA** > TOPAKETA

# Arantzetarren topaketan 150 lagun gutxienez

Zapatuan, hilak 18, bisita egingo dute Arantzeta auzora; harrera izango dute udaletxean eta haritza landatuko dute San Roke Osten

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Arantzetarrek aste bukaeran egingo dute nazioarteko topaketa. Hiru eguneko egitaraua antolatu dute, baina ekitaldi nagusiak zapatuan egingo dituzte, Elgetan.

Arantzeta auzoan egingo dute lehenengo ekitaldia, bertan du-eta sorrera abizenak. Ikerlariek 1375. urtean kokatzen dute abizenaren jatorria.

Ingurua, bertako baserriak, ermita eta iturria bisitatuko dituzte 10:00ak bueltan. Elgetarrek ondo ezagutzen duten paraje da, baina Mexiko, Kolonbia eta Venezuelatik etorriko diren arantzetarrendako momentu oso berezia izango da. "700 bat familia ditugu kontabilizatuta", adierazi digu antolatzaile lanetan diharduen Jose Luis Arantzetak. "Kafe antzokian egingo dugun bazkarirako 150 lagun daude izena emanda".

**HARITZA SAN ROKE OSTEN**

Arantzetarrei harrera egingo diete udaletxean, 11:30ean. Jarraian, San Roke Ostera egingo dute, bertan haritza landatzeko. "Jakin dugu bertan dauden pagoak arantzetar batek, Agustin Jose Arantzetak landatu zituela 1828an. Egunaren oroigarri, haritza landatuko dugu guk, eta aurreskua dantzatuko da.

**BAZKARIA ESPALOIAN**

Gosari txikia eta poteoa egingo dituzte jarraian. 8-10 laguneko lantaldea ibili da guztia prestatzen. "Aurreko egunean, barikuan, konferentzia egingo du Endika de Mogrobejo onomastika adituak Bilbon", adierazi du Jose Luis Arantzetak. "Arantzeta abizenaren jatorriaren inguruko xehetasunak emango ditu".

Arantzetarrek webgunea ere sortu dute *–aranzeta.org–* eta argazki politak lortzen badituzte ez dute liburu bat argitaratzea baztertzen. Espaloia kafe antzokian egingo duten bazkariarekin emango diete amaiera Elgetako ekitaldiei.

**ARAMAIO** > KZGUNEA

## Uztailean berriro ere irekiko ditu ateak KZguneak eta ikastaro gehiago eskainiko dira

Eduki berriak ikasi ahalko dira KZgunean uztailetik aurrera; lehenengo saioa uztailaren 20an izango da

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

KZgunea itxita egon da aspaldian. Orain dela hilabete batzuk ordenagailu bat lapurtu zuten eta gela ixtea erabaki zuen Udalak. Baina uztailean ateak irekiko ditu berriro ere eta KZgunera monitore bat joango da berriro ere zehaztutako egunetan. Uztailetik aurrera, gainera, ikastaro gehiago eskainiko dituzte. Eduki berri horiek ezagutzeko lehenengo aukera uztailaren 20an izango da. KZgunea zabalik egongo da 16:00etatik 20:00etara.

*Facebook, Tuenti* eta *Zugaz* sare sozialek sekulako arrakasta izaten dihardute. Hain justu ere, sare sozialen ingurukoa izango da ikastaro bat; ezagutzen dituzun pertsonekin komunikatu eta gauzak konpartitzen ikasteko. *Skype* programak ere komunikatzeko balio du. Kasu horretan, besteak beste, bideo deiak egiteko. Programa horren gaineko xehetasunak ikasteko aukera ere izango da aurrerantzean KZgunean. Blogak ere komunikatzeko tresna bat izan daitezke. Norberaren iritzia eta bizipenak beste erabiltzaile batzuekin konpartitzeko guneak dira blogak. Horiek sortzen ere irakatsiko dute. Horietxek izango dira, beraz, KZguneak uztailetik aurrera eskainiko dituen ikastaroetako batzuk. Baina ez dira bakarrak izango. Interesa dutenek *www.kzgunea.net* webgunean aurkituko dute ikastaro guztien gaineko informazioa. Horrenbestez, ikastaroetan parte hartu nahi dutenek Aramaioko KZgunera gerturatu besterik ez dute.

**ANTZUOLA** > INFORMATIKA

# Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean

Ikastaroak hilaren 14n eta 21ean egingo dituzte eta dagoeneko izena eman daiteke KZguneko telefonora deituta (943 78 70 86)

**MIREIA BIKUÑA** > ANTZUOLA

Antzuolako KZguneak antolatuta, askotariko ikastaroak egingo dituzte uztailean. Ikastaroak hilaren 14an eta 21ean emango dituzte, 16:00etatik 20:00etara. Gainera, egun horietan bisitak egingo dituzte KZgunean bertan. Dagoeneko izenemate epea zabalik dute. Informazio gehiago gura duenak edo izena eman gura duenak 943 78 70 86 telefonora dei dezake edo *tutor.antzuola@kzgunea.net* helbidera mezua idatzi. Aitor Madrid da Antzuolako KZguneko arduraduna.

**ASKOTARIKO IKASTAROAK**

Askotariko ikastaroak emango dituzte: alde batetik, informatikarekin zerikusia dutenak; besteak beste, sare sozialak ezagutzeko, bideo-deiak doan egiteko, *Google*-ek eskaintzen dituen tresnak ezagutzeko, *Youtube*-n bideoak bilatzeko eta ikusteko, eta *Wikipedia* entziklopedia erabiltzen ikasteko ikastaroak emango dituzte. Beste alde batetik, zuhaitz genealogikoak egiten erakutsiko dute.

Datozen asteotan egingo dituzten ikastaro guztiak 20 ordukoak izango dira.


Erabiltzaileak Antzuolako KZgunean. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > TXIRRINDULARITZA

## Txirrindulari Batzordea pozik 31. lasterketarekin

Hala ere, gero eta zailagoa dela halako txirrindulari lasterketa antolatzea diote

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Joan zen domekan, uztailak 5, egin zuten 31. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa. 105 txirrindularik hartu zuten parte eta Txirrindulari Batzordeko kideak oso pozik daude gorabehera barik burutu zelako: "Epaile eta federazioko kideek zoriondu egin gintuzten lasterketa polita eta ondo antolatuta izan zelako", diote.

Era berean, herritarrak eskertu gura dituzte antolatzaileek, lasterketa egin bitartean laguntza handia eskaintzen dutelako, urtero, herritar askok borondatez.

**ANTOLATZE LAN ZAILAK**

Lasterketak, baina, dirutza eskatzen du. Txirrindulari Batzordeko kideak iraileko jaietara pasatzekotan egon dira, eta Andramari jaietan egiten den mendi bizikleta zeharkaldia kendu. "Lasterketak ia 6.000 euro balio ditu eta mendi bizikleta probak, 2.000 inguru. Udalak 2.000 euroko laguntza ematen digu eta gainerakoa publizitate bitartez bilatu behar. Baina hori gero eta zailagoa da bizi dugun egoerarekin", diote.

Debagoienean egiten den txirrindulari lasterketa bakarrenetakoa da Gatzagakoa Aretxabaletakoarekin batera, eta ahal dela ez dute bertan behera utzi gura. Hori horrela, aurrera egitea erabaki dute aurten eta bi probak egingo dituzte, joan zen domekako lasterketa eta mendi bizikleta zeharkaldia irailaren 6an.

# Kirola



**> ARRAKASTATSUA**
Ia 200 lagunek hartu dute esku Bergarako hirunako saskibaloi txapelketan **> 23**



**> PELLO BILBAO**
Antzuolako sarian Naturgaseko ziklista gernikarra izan zen azkarrena **> 24-25**

**> PATXI DE ANDRES**
Mondrak eguenean egin zuen urteko batzar orokorra, eta zuzendaritza berria aurkeztu zuten; Patxi de Andresekin izan gara berbetan, presidente berriarekin **> 27**



**FUTBOLA** > IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

# Hamaika eta Zutaz pentsatzen taldeak, Ipintzako txapeldunak

## FINAL ESTUAK

River Santana eta Potzu ta zapaburuak utzi zituzten atzean

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Egubakoitzean jokatu zituzten Ipintza futbol txapelketan gizonezkoen finalak, bai ligan eta bai kopan. Gol gutxiko arratsaldea izan zen, bi neurketetan irabazleak tarte txikiagatik eskuratu zuelako garaikurra. Kopan Indar Gorri eta Beti Cup taldeak izan ziren aurrez aurre, eta egiten zuen beroagatik-edo, partidu motela izan zen. Kopa Indar Gorrirendako izan zen, 1-0 irabazita.

**LIGAN HAMAIKA ONENA**

Ondoren etorri zen arratsaldeko partidu garrantzitsuena, ligako finalean Hamaika eta River Santana aurrez aurre. Eta hor ere gol gutxi, eta indarrak nahiko parean. Akaso, Hamaika izan zen baloia batera eta bestera mugitzen gehiago ahalegindu zena, baina aurrelariek behin eta berriro egin zuten talka lan oso ona egin zuen Riverreko defentsaren kontra. Hamaikako Antxon izan zen goleatzailea, birritan bidali zuelako baloia saretara, baina lehenengoan jokoz kanpoko jokaldia adierazi zioten. Bigarrena bai, ona, eta partidua erabaki zuen horrek. Bazirudien River Santana ez zela azken minutuetan piztuko, nekatuegi egongo zirela. Baina, Riverrekoek korner erdiraketa bat buruz ondo errematatu, eta larritasuna ekarri zuten Hamaikakoen zale artera. Errematea, baina, gutxigatik joan zen kanpora (1-0).

Bakarkako sarietan Ander Sesma (atezain onena), Mikel Otero (goleatzaile onena) eta La Juveko Jon (jokalari onena) nabarmendu ziren.

**NESKETAN BAI, GOL MORDOA**

Emakumezkoek domeka eguerdian jokatu zuten finala, Zutaz pentsatzen eta Potzu ta zapaburuak elkarren kontra, eta guztira zortzi gol egin zituzten (5-3). Ate aurrean Zutazekoak izan ziren abilagoak, eta txapelketan gol gehien egin dituen jokalaria ere talde horretakoa da, Maite Aranzabal (48 gol). Atezain onenaren saria, berriz, Realean dabilen Sokoa Azkaraterendako izan da. Eta, txapelketako jokalari onenaren saria jaso zuen Ainhoa Alonsok.



**TXAPELDUNAK** Hamaika taldea izan da, gizonezkoetan, Ipintzako talderik onena. XABIER URTZELAI



**LIGA** Santana River (urdinak) eta Hamaika (laranjak), partidua amaitu eta garaikurrak jaso ostean. X.U



**GOLEGILE** Hamaika taldeko Antxon, Riverreko atezainarekin. X.U.



**KOPA** Indar Gorri eta Beti Cup taldeak, sariak jaso ostean. Indar Gorrik irabazi zuen Kopa (1-0). X.U.

**KIROL ELKARTEAK** > BATZARRA

# UDAk 180.000 euroko aurrekontua izango du, iaz baino 30.000 gehiago

Egubakoitzeko batzarrean azaldu zuten denboraldi berrian iaz baino 30.000 euro gehiago izango dituztela; gaur, hirugarren mailako taldea aurkeztuko dute Ibarran (19:00)




Irudian, UDA kirol elkarteko zuzendaritzako kideak, egubakoitzeko batzar orokorrean. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Aretxabaletako UDA elkarteak batzarra egin zuen egubakoitz arratsaldean, Arkupen. Lehenik eta behin, zuzendaritzan egindako aldaketen berri eman zuten. Zazpi kide izatetik, hamaika izatera pasa da elkartea. Honako hauek dira kide berriak: Eduardo Altube, presidente moduan; eta Antonio Rajadok, Jesus Mari Martinezek eta Jose Ramon Gordoak bokal moduan jardungo dute.

Horretaz gain, kirol elkartearen egoera ekonomikoaren gainean ere hitz egin zuten. Aurten 3.000 euroko defizita aurkeztu dute eta datorren denboraldiari begira, aurrekontuak 30.000 euro gehiago izango dituela azaldu zuen Eduardo Altubek. Hain zuzen, 150.000 euroko aurrekontua izatetik 180.000 eurokoa izatera pasako dira.

UDAk, gainera, gaur aurkeztuko du hirugarren mailan jokatuko duen taldea (19:00ak, Ibarra futbol zelaia). Han egongo dira taldeak aurtengo denboraldirako egindako zortzi fitxaketak.

**ESKORIATZA KIROL ELKARTEA**

Bestalde, gaur, astelehena, Eskoriatza kirol elkarteak batzar orokor arrunta egingo du. Hitzordua 19:00etan da, Ibarraundi museoan.

**PILOTA**

# Bergarak hirutik bitan irabazi du

Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketan, joaneko partiduak jokatu dituzte

**M.B.** > BERGARA

Bergarak Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketako finalerdia jokatu zuen egubakoitzean Iruñearen kontra, Oberena pilotalekuan. Jokatutako hiru partiduetatik, bi irabaztea lortu zuten Reyes Azkoitiaren mutilek.

Kadeteetan, partidu gogorra jokatu ostean, lortu zuten bergararrek 14-22 nagusitzea; gazteek, berriz, gutxi egiterik izan zuten: 22-2 galdu zuten. Azkoitiaren arabera, bi taldeen arteko diferentzia handia zen. Nagusien partidua ere oso gogorra izan zen, bereziki hasierako zatia. Minutuek aurrera egin ahala geroago eta hobeto, Muguruza lehengusuek 22-13 irabazi zuten.

Egubakoitzean itzulerako partiduak jokatuko dira Bergaran, 20:00etan



ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**

1000 b/min
5 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3TS-5100
290 € Balay

1000 b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA IWC-7105
335 € indesit

1000 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2810
445 € FAGOR

1200 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
470 € FAGOR

144 x 55 x 60
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AFD- 144
310 € aspes

2 BERME URTE

pirolisis labea HP-7660 X + 3 fokoko indukzioa VI-3 TS
lehen: 1.099 €
Orain bakarrik: 933 €




Eskaintza bereziak babes ofizialeko etxeetarako!



Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Ander Gartzia saskibaloi jokalaria kide zen Michael Jackson izeneko taldeak irabazi zuen sari nagusia. JOSETXO ARANTZABAL



Jokalariek eta ikusleek, gozatu egin zuten. JOSETXO ARANTZABAL

**KIROLA** > II. SORALUCE COOP. TROFEOA

# Saskibaloia kalera atera dute, plaza kantxa bilakatuz

Hirunako saskibaloi txapelketak parte hartzaile eta ikusle mordoa batu ditu herriko plazan

Bergarako taldeak ez ezik, Debagoienetik eta kanpotik etorritakoak ere izan dira

**MIREN ARREGI** > BERGARA

61 taldek eta ia 200 bat lagunek hartu dute parte asteburuan jokatu den hirunako saskibaloi txapelketan. Iaz eguraldiarekin izandako arazorik ez dute izan aurtengoan, eta hura lagun, giro ederra sortu da asteburuan Bergarako plazan. Uneoro egon dira herritarrak talde bat edo bestea animatzen, eta antolatzaileak gustura daude txapelketak emandakoarekin. Parte-hartze kopurua txukuna izan da baina pena batekin gelditu dira, izan ere, emakumezko talde gutxik eman du izena. Bergarako taldeak ez ezik, Debagoienetik ere etorri ziren jokatzera, hala nola Arrasatetik, eta baita urrunagotik ere, Zarauztik esaterako.

**TALDEAK ASKO, SARIAK ERE BAI**

Elite mailan Soraluce S.Coop saria Michael Jackson taldeak irabazi zuen, Zarauztik etorritako Pantalones de pana taldeari irabazita. Txalo zaparrada itzela entzun zen bukaeran plazan. Soraluce S.Coop saria senior nesketan, berriz, Ambox Team taldeak eroan zuen. Koadrilen arteko lehiari dagokionean, The Cowboys of Return taldeak eskuratu zuen lehen postua, eta horrekin, Lasa jatetxean bazkari edo afari bat egiteko aukera. Industrias Aperribay saria, junior mutiletan RJBM 92 taldeak irabazi zuen, eta hiruko jaurtiketen txapelketan, Jon Arteaga izan zen onena.



Irudian, Ambox Teem taldekoak emakumezkoetan irabazleak. JOSETXO ARANTZABAL



Domekan izan zen gaztetxoenen txanda. JOSETXO ARANTZABAL

## 3X3 SASKIBALOI TXAPELKETAKO PARTE-HARTZAILEAK



**Amaia Garitano**
Parte-hartzailea

"Saskibaloian jokatzen dut, gustuko dut eta aurten ere parte hartzea erabaki dut. Gustura egon gara eta arratsalde eder bat pasatu dugu, nahiz eta neska talde gutxik hartu duen parte".



**Ugutz Basauri**
Antolatzailea eta parte-hartzailea

"Saskibaloi taldean jokatzen dut eta antolakuntzan nago. Lana du hau antolatzeak, baina esan behar da, gurasoen laguntza handia izan dugula. Pozik gaude, izan ere, bailaratik ere etorri da jendea".



**Maite Aranzabal**
Parte-hartzailea

"Txapelketan parte hartzen dudan lehen aldia da eta oso ondo pasatu dut. Zuzenean sartu gara finalera, neska talde gutxik eman duelako izena. Hurrengo urtean ere hemen izango naiz".



**Ander Gartzia**
Saskibaloi jokalaria

"Jende asko ibili da eta oso arratsalde polita pasatu dugu. Gainera, talde on bat osatu dugu eta lortu dugu irabaztea; hori zen helburua. Onartu behar dut, baina, azken partidua kosta egin zaigula".



**Gorka Fdz. eta Ander Fuentes**
Parte-hartzaileak

"Giputxiak eta Euskocheese taldeetan jokatu dugu eta ondo aritu gara, nahiz eta bero handia egin duen. Finalera ez gara iritsi, baina saiatuko gara datozen urteetan finalera iristen".

**64. ANTZUOLA SARIA, IÑAKI LETEREN OROIMENEZKOA** > LEHENDAKARI TXAPELKETA

# Iaz gaztetan, atzo nagusitan, Pello Bilbao azkarrena izan zen Antzuolan

Iaz gazte mailan lortutako garaipena errepikatu zuen gernikarrak atzo, baina kategoria berrian; Bilbaok zortzi segundo atera zizkion Imanol Izari

**XABIER URTZELAI** > ANTZUOLAN

"Azkeneko urteotan zortea izaten nabil Antzuolan. Iaz gazte mailako azken urtea izan zen niretako, eta Antzuolan denboraldiko lehen garaipena eskuratu nuen. Aurten ere Antzuolan irabazi dut lehenengoz, baina 19 eta 20 urteko txirrindularien artean".

**ASENTZIO, ERABAKIGARRIA**

Pello Bilbao gizon zoriontsua zen atzo. Merezitako garaipena lortu zuen, neurri handian, Asentzio igotzen (107. kilometroan) indartsuena izan zelako. Gehienak ito zituen hor, Bruesako Imanol Iza izan zelako jarraitu zion bakarra.

Ordurako eguerdia zen eta bero galanta egiten zuen. Asentzio igo baino lehenago, Angiozarko bidea hartu eta berehala Koplad taldeko Iban Sanchezek erasoa jo zuen. Ez zuen alde handirik eskuratu, eta Angiozarko kurba itxian, pilotaleku azpian 30 laguneko taldeak irentsi egin zuen. Hor hasten dira Asentzioko malda gogorrak, eta orduan apurtu zen lasterketa, goitik behera. Baina igoera ez da luzea, hiru kilometro pasatxo, eta aldea hartzeko erasoa lehenbailehen jo zuen Pello Bilbaok (Naturgas). Garikoitz Bravok (Caja Rural) eta Imanol Izak (Bruesa) ez zuten birritan pentsatu; Bilbaoren pinoi aldaketa igarri, beste horrenbeste egin, eta gora. Erritmo aldaketa horri Bravok baino okerrago erantzun zion Izak, baina, ezustea, Bravok pot egin eta Bilbaok aurrera egin zuen, Iza 50 metro atzerago zuela. Elgetara bakarrik iritsi zen Gernikako ziklista, baina atzetik zetorkion Iza, Antzuolara arte beharrezko zuen bidelaguna.

**BIAK LANEAN**

Elgetatik Bergarara ziztu bizian jaitsi ziren, erreleboak emanaz. Biek ala biek ondo zekiten elkarren behar zutela; izan ere, azken sei kilometroak luzeegiak dira bakarrik egiteko. Eta, Bergarako bariantean bi taldeetako ziklistek baino, euren autoek izan zuten lan handiagoa, nork eman ze agindu, kontrarioa nahasteko edota animuak emateko. Naturgaseko zuzendari laguntzailea ahalegindu zen autotik Iza urduri jartzeaz, Pellori keinu egin eta helburua lasterketa irabaztea ez zela esanaz.

**40 SEGUNDOKO ALDEA**

Aurreko biek ez zuten gehiago, eta alde horri eutsi behar zioten azken kilometroetan. Atzerago, Sergio Ruiz (Debabarrena), Illart Zuazubiskar (Seguros Bilbao), Gorka Olaizola (Bidelan) eta beste hainbat tira eta tira, aurrekoak harrapatu guran. Eurekin batera zen Noel Martin (Naturgas), baina ihes egindakoa taldekidea izanda, batere lanik ez egiteko agindua izango zuen.

Bi kilometroren faltan Izak erasoa jotzeko erabakia hartu zuen, baina ez zuen fruiturik jaso. Bilbao oso adi zegoen, eta erritmo aldaketari bikain erantzun zion. Bidelagunaren gurpila berriro ere harrapatu, aurreratu eta Naturgasekoak buruaz ezetz esan zion: "Horrela inora ere ez gindoazela esan nion, atzekoak gertu zetozelako. Nire asmoa zen herriraino batera iristea, eta lehenengo postua esprintean jokatzea".

Baina Bilbaok ez zuen herriraino itxaron. Matz-Erreka enpresaren parean, kilometro bat lehenago egindakoa itzuli zion Bruesako ziklistari, erritmo aldaketa gogorra, eta Izak ezin erantzun. Hala, plazan ez zen esprintarekin gozatzerik izan.

DATUA

**110**

**ZIKLISTA**

Lasterketa arrakastatsua izan zen domekakoa, parte-hartze handia, ihesaldi saiakera asko eta ia erorketa barik. Medikua ez zen autotik irten. Datorren astean Elgetak hartuko du erreleboa.

## 64. Antzuolako Saria lasterketa

**LASTERKETAKO SAILKAPENA**

| | |
|---|---|
| 1. Pello Bilbao (Naturgas) | 2:55:53 |
| 2. Imanol Iza (Bruesa) | 8 segundura |
| 3. Sergio Ruiz (Debabarrena) | 16ra |
| 4. Illart Zuazubiskar (Seguros) | 21era |
| 5. Gorka Olaizola (Bidelan) | 31ra |
| 6. Iban Sanchez (Koplad) | 31ra |
| 7. Garikoitz Bravo (Caja Rural) | 31ra |
| 8. Victor Cabedo (Seguros) | 31ra |
| 9. Antxon Ibarguren (Bruesa) | 31ra |
| 10. Jon Larrinaga (Nturgas) | 1 min. |



Tropeleko aurreko taldea Legazpiko azken biribilean, Bikuña futbol zelai parean, Udanara bidea



Proban parte hartu zuten 110 ziklistak, lasterketa hasteko zain, 09:25ean. X.U.



Bilbaok zortzi segundoko aldea zuen lasai helmugaratzeko. X.U.




Lasterketako azkarrena, eta mendiko saria poltsikoratu zuen Bilbaok. X.U.



n. Aurrerago ihes egindako talde bat zegoen, baina Oñatin harrapatu zituzten. XABIER URTZELAI

Pello Bilbao > Irabazlea

## "Hasieratik izan da oso gogorra, baina taldeko lan ona egin dugu"

X.U. > ANTZUOLA

**Pello Bilbao azkarrena izan zen atzo Antzuolako Sarian, baina meritua taldearena izan zela adierazi zuen. Naturgas talde indartsua da, bai, baina Gernikakoa lehiakor ibili zen, lehenengo kilometroetatik. Eta, merezitako saria jaso zuen helmugan.**

**Lasterketa eta mendiko saria irabazita, egun biribila.**

Bai, oso pozik nago. Hasieratik izan da lasterketa gogorra, talde guztiek egon nahi izan dutelako proban izan diren ihesaldietan. Baina, taldeko lan oso ona egin dugu, eta horri esker eguneko ihesaldi guztietan sartu gara. Lanak banatu ditugu, eta horri esker iritsi naiz azken kilometroetara irabazteko aukerekin.

**Asentzio erabakigarria izan da.**

Erasoa jo dut hor, baina asko kostatu zait lasterkariak atzean uztea. Niretako Garikoitz Bravo zen hor nuen kontrario gogorrena, baina gurpiletik atera dudanean ikusi dut atzean utziko nuela. Gero, Bruesako Iza nirekin batera etorri da, eta batera egin ditugu azken kilometroak.

**Bergaratik Antzuolara bidean Izak jo du lehenengo erasoa.**



X.U.

Bai, eta keinua eginez ezetz esan diodanean argi neukan lanean jarraitu behar genuela. Nik nahiago nuen herriraino iritsi eta gero esprinta jo, uste nuen horrela aukera gehiago izango nituela, baina lehenago erabaki da proba.

**Iaz gazte mailan, kategoria berrira ederto moldatu zara.**

Bai, oso gustura nabil, denboraldian zehar behin baino gehiagotan sailkapeneko lehenengo hamar artean izan naiz, eta indartsu sentitu naiz. Baina, lehenengo urtea izanda urte hasieran ez nuen garaipenik aurreikusten, lehenengo urtean ez, behintzat; eta niretako garaipen hau sorpresa izan da.

Salneurri gomendatua Ford Kuga Trend 4x2 TDCi 136ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga, 2000E plana eta kontzesionarioaren ekarpena barne.
Hilabete bukaera arte baliagarria izakinak agortu arte. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena.
Kuga gama, batez besteko kontsumoa: 6,3-6,4 l/100km. $CO_2$ igorpenak: 165-169 g/km.

Orain eraman ezazu inoiz izan duen preziorik onenean.
5.000 €-rainoko deskontua

• ABS + EBD + CBC • ESP + ARM + TSA • TCS + BLD
• Abiadura Kontrola • Aurreko eserleku deportiboak
• Ford Power giltza bako arrankatzea
20.900 eurogatik diseinua guztien eskurra
Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Feel the difference
Ford

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

**ESKOLA KIROLA** > MENDI IRTEERAK

# Gazteek gurasoekin batera egindako irteerekin gustura

Pol-Poleko eta Bergarako ikastetxeetako ordezkariak gustura geratu dira ekimenarekin

Eskola kirol barruan, Pol-Pol mendi taldearen, Udalaren eta diputazioaren laguntza izan dute

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergarako ikastetxeetako ordezkari Mikel Agirrezabalek (Aranzadi Ikastola), Igone Garitanok (San Martin Herri Eskola) eta Inazio Larrañagak (Mariaren Lagundia) balorazio positiboa egin dute aurten eskola kirol barruan Pol-Pol mendi elkartearekin batera abian jarri duten egitasmoaz. Batetik, Gazteak izeneko taldeak (12-16 urte) bost irteera egin ditu aurtengo ikasturtean, eta horiek guraso barik ibili dira, Pol-Poleko monitoreekin batera.

Bestetik, Gaztetxoak taldea izan da, 12 urtera arteko neska-mutikoz osatua, eta talde horretan gurasoak gonbidatuta zeuden irteeretan parte hartzeko: "Gazteak mendira eramateko irteera aproposak izan dira, 3-4 orduko ibilbideekin, eta inguruko parajeetan, gainera. Eta, irteera gehienetan eguraldiak lagundu ez badu ere, arrakasta handia izan dute", adierazi du Agirrezabalek. Eta hor, Pol-Poleko ordezkaria ere baden Larrañagak mendi taldearen ikuspuntua ere eman du: "Pol-Polek balorazio positiboa egiten du, azpimarratuz, aurten moduan, autobusetan eta bestelakoetan gaztetxoek izango dutela lehentasuna".

**BERGARA EZAGUTU**

Gaztetxoen irteerak inguruan egin dituzte: "Diputazioaren laguntza jasotzeko Gipuzkoan egin behar dira irteerok; eta gainera, uste dugu gaur egungo gazteek ez dituztela hemengo bazterrak guk gaztetan ezagutzen genituen bezala ezagutzen". Horregatik, Gorlara, Asentziora, Andartora... egin dituzte irteeretako batzuk.

Datorren urtean ere irteera gehiago egingo dituzte, eta dagoeneko badute lehenengo hitzordua, urriaren 18an egingo duten Finalista Eguna.



Mikel Agirrezabal, Igone Garitano eta Joxe Inazio Larrañaga. X.U.



Bergarako neska-mutikoak gurasoekin batera Andutzeko tontorrean, Itziartik irten ziren mendi zeharkaldian. POL-POL

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

GARANTIA DE ALQUILER



• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:**
- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• **Fiskala:**
- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontabilidadea:**
- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

Patxi de Andres> Mondrako presidente berria

# "Erregionalaren helburua izan behar da beheko mailetako mutikoen taldea izatea"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Mondra futbol taldeak urteko batzar orokorra egin zuen eguenean Mojategin. Berezia izan zen, batez ere azken 10 urteotan zuzendaritzan ibili direnek euren karguak utzi zituztelako; zuzendaritza talde berrian jarraituko duen bakarra Patxi de Andres izango da, hain zuzen, presidente lanetan.**

**Aurreko zuzendaritza taldetik geratzen zaren bakarra zara.**

Bai, jendea lanerako gogoz ikusi dudalako erabaki dut geratzea.

**Zeintzuk izango dira datorren denboraldiari begira zuzendaritza berriak izango dituen berritasunak?**

Gure asmoa da, kirolari dagokionez, mutilen lehenengo bi taldeak bateratzea. Orain dela hiru urte sortu zen taldea, eta batez ere Zaldibarretik etorritako jendeak jokatzen zuen. Baina erregionalaren helburua da beheko mailetako mutikoen taldea izatea. Hala, preferente mailara edozein momentutan salto egiteko moduan egotea.

Bestalde, zuzendaritza talde irekia egin gura dugu. Edozeinek parte hartzeko aukera izan dezan, eta errotazio bidez batzuk irten eta beste batzuk sartzeko aukera izan dezaten. Horrela, samurragoa izango da lan egitea.

**Eta zeintzuk izango dira datorren denboraldiko helburuak?**

Beste urtebetez preferente mailan mantentzea behintzat bai. Hirugarren mailara igotzea utopia da, gaur egun.

Uste dut nahiko talde sendoa izango dugula; esperientziadunak izango dira jokalariak.

Nesken helburua igotzea izan beharko litzateke. Uste dut orain dela igotzeko momentua.

**Zela baloratu duzue Mondraren azken denboraldia?**

Preferente mailako taldeak lan ona egin duela uste dugu. Eskatu genion Andoniri gazteei aukera emateko, eta uste dut hori erabakigarria izan dela sailkapen orokorrari begira. Jende askok ez du ulertuko gure helburua, eta egia da beste modu batera planteatuz gero, partidu gehiago irabaz ahalko genuela. Beteranotasun faltagatik galdu dira partidu asko.

Esan behar da, konturatu garela preferente mailako talde kopurua 18ra jaitsi zenetik oso maila lehiakorra dela. Sailkapenean behean sartzen bazara, oso zaila da hortik ateratzea. Maila handiko jokalariak daude.


Patxi de Andres Mojategin hartutako irudian. ARANTZAZU EZKIBEL

Bestalde, oso harro gaude neskek egin duten lanarekin. Eta pena izan da erregional mailako taldeak maila galtzea.

**Nola dago Mondraren ekonomia?**

Iaz 137.400 eurorekin hasi genuen denboraldia. Realak ordaindu behar digun 12.000 euroak ez ditugu jaso, ezta Diputazioarenak ere. Baina Diputazioarena uztailaren 31 baino lehen jasotzea espero dugu.

Poliki-poliki arazoa konpontzen dabilela ematen du. Orain Diputazioak bere zatia ordaindu ko digu. Gertatzen dena da lehen ematen zuten kopuru orokorra %30 jaitsi dela. Hortaz, taldeek gutxiago jasoko dugu. Baina orain gai hori geldi dago; izan ere, Eibar eta Real Unionek guk baino gehiago jasotzen zuten; hortaz, proportzionalki eurei askoz gehiago eragingo die orain diru gutxiago jasotzea.

**Futbol eskolak orain arte bezala jarraituko du?**

Bai, futbol eskolarekin jarraitu egingo dugu. Iaz, esaterako, 84 ume ibili ziren, eta aurten ere antzerako kopurua izango da. Ofizialki, eskualdeko lehenengo futbol eskola guk sortu genuen. Gerora etorri dira besteak.

**Babesle berria izango du Mondrak datorren denboraldian?**

Oraindik lotu barik dagoen gaia da. Babesle handi batekin gabiltza berbetan, baina oraindik ezer lotu barik dagoenez, ezin dugu izenik esan. Babesle berria izanez gero, kamisetak aldatu beharko genituzke.

**Gainera, mailen izenak aldatu egin dira.**

Bai, Preferentea Ohorezko maila izango da aurrerantzean, eta 1. erregionala, Preferentea.

## Zuzendaritza talde berria guztiei irekia izango da

Manu Arroyo, Juan Jose Uribesalgo, Abraham, Javi Moto, Patxi de Andres, Juanjo Nafarrate, Xabi Gartzia, Andoni Etxagibel eta Maitane Gallastegi –argazkian falta da– izango dira zuzendaritza berriko kideak. Orain arte Jose Luis Azkaratek zuzendu duen taldeari errelebua hartuko diote, eta talde irekia osatzeko asmoa dute. Euren asmoa da bi urteko zuzendaritza taldea izatea, eta denbora hori pasatakoan beste batzuk sartzen joatea, besteak beste jokalarien gurasoak.Horrela, samurrago lan egiteko.


Mondrako zuzendaritza berria. A.EZKIBEL

**"Zuzendaritza talde irekia izango da, edozeini irekita egongo da"**

**"Preferente maila asko zaildu da, 18 taldera jaitsi zenetik talde kopurua"**

**OPORRAK>** DENBORA GEHIAGO UMEEKIN

# Jostailuen inbentarioa egiteko aprobetxa daitezke oporrak

Aholkuak eman ditu Itziar Bartolome psikologoak, umeekin praktikara eramatekoak

Eguneroko erritmoa aldatu egiten da etxeko txikiak oporretan daudenean

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Ikasturtea bukatu da, oporrak iritsi dira etxeko txikienendako eta horrekin batera eguneroko erritmoa aldatu egin da. Horretaz jabetuta, Itziar Bartolome psikologoak, *Guraso.com*-eko kolaboratzaileak, aholku "osasungarri" batzuk eman dizkigu.

**UMEEKIN BATERA EGITEKOAK**
Hainbat lantxo daude haurrekin egin ahal direnak edo haurrak bakarrik egin ahal dituenak (adinaren arabera): erosketak, logela txukuntzea, bazkaria prestatzen laguntzea… Haurraren autonomia eta ardura maila garatzeko bide garrantzitsu bat aktibatuko dugu. Gainera, haurrek gustura hartzen dute nagusien zereginetan laguntzeko aukera.

**NATURAGUNEETARA HURBILDU**
Hartu denbora haurrarekin konpartitzeko, egoteko, edozein aitzakia da ona ikasturtean zehar izan ez dugun denbora berreskuratzeko eta elkarrekin egoteko. Jarrera horrek haur eta gurasoen arteko harremanaren kalitatean urratsak egiteko balio dezake. Ahal den guztietan naturaguneetara hurbildu: mendira, hondartzara, errekara… egunpasa lasaigarria izan daiteke denontzako.

**TELEBISTA ORDUAK MUGATU**
Eguneko, gehienez telebista ordu bat baimendu. Telebista ez dadila izan haurraren zaindari birtual bihurtu. Eman oporrak telebistari.

**JOSTAILUEN INBENTARIOA EGIN**
Ariketa sano bat etxeko jostailuen inbentarioa egitea izan daiteke. Atera etxetik gordeta dauden jostailu guztiak eta garbiketatxoa egin. Erabili nahi dena hartu eta bestea eman. Jostailuen artean beti agertuko da haurrak asko maite duen, baina ahaztua duen jostailutxoren bat. Aurkikuntza atsegina izango da.



Umeak ziburuetan jolasten. ITZIAR BARTOLOME

> IRTEERAK

### Landara, eskalatzera eta Degurixara Txatxilipurdirekin

Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak egindako Udaixe programaren barruan, hiru irteera egingo dituzte aste honetan, eta hiruretan dago oraindik tokia: astelehenean Landara joango dira, 11:00etan abiatuko dira Garibaitik; eguaztenean eskalada egingo dute, eta oso plaza gutxi gelditzen dira; egubakoitzean Degurixara joango dira gaua pasatzera eta zapatu goizean bueltatuko dira.

> SEXUA

### Umearen sexua etxean jakiteko modua dago

Jaioko den umea neska ala mutila izango den jakiteko proba berriak *Boy or Girl Gender Prediction Test* du izena. Amaren txiza substantzia kimiko batekin bustitzen da eta, horrek hartzen duen kolorearen arabera, umea neska edo mutila izango den jakingo da. Emaitza, hala ere, ez da %100ekoa, %80 ingurukoa baizik. 35 dolar kostatzen da.

> TOPAKETAK

### Kantuak, jolasak eta ahozkotasuna Hik Hasiren X. topaketetan

Hik Hasik udako X. topaketak egin ditu uztailaren lehen hiru egunetan. Donostiako Pedagogiako Fakultatean egin ditu eta eta hezkuntzarekin lotutako hainbat jai jorratu dituzte. Adibidez: 0 eta 5 urte bitarteko umeendako kantu eta jolasak, irakurketa sustatzeko estrategiak, ahozkotasuna eta umeendako masajeak.

**ahokuen txokoa**

LIBURUA

## Generación Einstein

- **> Izenburua:** *GeneraciónEinstein. Más listos, más rápidos y más sociables.*
- **> Egilea:** Jeroen Boschma (Holanda, Kessie enpresa).
- **> Argitaletxea:** Generacion 2000.
- **> Orrialdeak:** 308.
- **> Sariak:** Marketin onenaren saria Holandan 2006an.




## "Gazteei errespetuz hurbiltzeko gonbidapena"

**O.E.** > ARRASATE
Gaur egungo gazteekin nola komunikatu azaltzen duen liburua aurkeztu du Blanka Jauregik, Arrasateko Udaleko Gazte Saileko buruak, *guraso.com* webgunean. "Egungo gazteengana errespetuz, jarrera ireki eta baikorraz hurbiltzeko gonbidatzen gaitu liburuak. Mundu berean bizi gara, bai, baina gazteen pertzepzioa ezberdina da, gaitasun handiagoa dute mundua interpretatzeko, gai dira nahi dutenekin nahi duten momentuan kontaktuan jartzeko…", dio Jauregik. "*Einstein belaunaldia* izenburuarekin, 1988tik aurrera jaiotako gazteak izendatzen ditu eta azpi-izenburuarekin haien ezaugarri batzuk: argiagoak, azkarragoak, soziableagoak. Norekin konparatuta? Orokorrean, 1988az aurreko gazte guztiekin, baina batez ere aurreko bi belaunaldietakoekin: *x* belaunaldia (1960-1985) eta *baby boom*-ekoa (1945-1955). Lagunek garrantzi handia dute gazteentzat, baina baita familiak ere. Familia jada ez da kontrola edo agintea, baizik eta harreman eraikitzaile eta autentikoa, segurtasuna eta afektibitatea; zerikusi handirik ez aurreko belaunaldiekin. *Einstein belaunaldia* marketinari buruzko liburua da, gazteei begira jarrita. Eta une batzuetan kontrakoa ematen badu ere, Boschmak ez ditu aurkezten gazteak izaki zoragarriak bezala. Azpimarratzen duena da haiei begiratzeko jarrera aldatu beharra".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> KUKAI**
Gipuzkoako soka dantza tradizionalean oinarrituta, dantza ikuskizun modernoa egin zuten > 30



**> GOIKOROCK**
Bergarako musika taldeen entsegu lokalak berritu eta inaugurazioa egin zuten egubakoitzean > 30



**> HUDSON FALCONS**
AEBetako musika taldea hirugarren aldiz joan da Arrasateko gaztetxera kontzertua egitera > 31

# Hirietako doinu, kolore eta erritmoak, kalean sortutakoak

Zapatuan lehenengo Hip-hop Eguna egin zuten Aretxabaletan, Udalak antolatuta

Scratch, break eta grafiti tailerrez gain, erakustaldi eta ikuskizunak izan ziren



Hip-hoparekin lotutako ekintza asko egin zituzten; besteak beste, scratch ikastaroa eta erakustaldia (argazkian). JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA
Herenegun, zapatua, musika, kolore eta ekimen bereziak izan ziren Aretxabaletako Kurtzeberri eskolako patioan. Udaleko Kultura Sailak antolatutako Hip-hop Eguna egin zuten, orain arteko lehena.

Udalaren helburua zen gazteendako erakargarria izango den ekimen berritzailea egitea; eta hala, ibarrean orain arte antolatu den mota horretako lehenengo jaia egin zuten.

**IKASTAROEK, HARRERA ONA**
Hip-hoparen alorrean aritzen diren mota askotako adituek esku hartu zuten jaian; batetik, irakasle moduan; eta bestetik, ikuskizuna egiten.

Hala, goizetik bazkal ordura bitartean grafiti, scratch eta break-dance tailerrak egin zituzten. Bertaratutakoen artean, herriko gaztetxoak eta inguruetako hip-hop zaleak izan ziren. Scratch-ean ikasteko tailerrak jakin-mina piztu zuen eta Esne Beltza taldeko DJak hainbat azalpen eman zizkien hurbildutakoei. Bestalde, Samu Crew taldekoek bost bat gazte izan zituzten adi-adi break pausoak ikasten; eta grafitiak egiten zortzi bat panel margotu zituzten. Are gehiago, umeak ere animatu ziren grafitiak egiten.

**GRAFITI ERRALDOIA**
Horiez gain, goiz-eguerdian, Aretxabaletako Mikel Escobales patioko hormetako baten grafiti erraldoi bat egiten hasi zen; hori zen Udalak antolatutako grafiti lehiaketa irabazteagatik. Egiten zuen bero handiaren erruz, arratsaldean ez zuen askorik aurreratu; hala, gaur, astelehena, bukatu beharko du lana. Pop-art-ean oinarritutako marrazkia izango da, bestelako estiloen elementuak ere izango dituena.

**HERRIKO HIP-HOPA**
Arratsaldean, aurreikusi baino beranduago –egiten zuen beroarengatik– patioko agertokian scratch erakustaldia egin zuten hainbat disko jartzailek.

Horren ostean, bertaratutakoek hip-hop erakustaldia egiteko aukera izan zuten; eta Aretxabaletako gazte batzuk igo ziren agertokira. Igo bakarrik ez, eskarmentua badutela ere erakutsi zuten.

Jaiari bukaera emateko, Bertso Sound System ikuskizuna iragarrita zegoen arren, Xabier Silveira bertsolariak ezin izan zuen etorri, eta ez zen hip-hop eta bertsoen arteko lehiarik izan. Horren ordez, Barakaldoko hip-hoperoak aritu ziren oso modu txukunean. Ez hori bakarrik, horiekin batera, Euskal Herrian musika beltz eta dantzagarriaren artean ezinbestekoa den Aritz Sound System ere aritu zen.

ESANAK

**"Hip-hoparen alorrean ere euskaraz aritu daitekeela egiaztatu eta gazteei ezagutzera eman diegu"**
**Maider Etxaniz** > Udal teknikaria

**"Kalean ikasi dut neuk grafitiak egiten, neure kabuz; inprobisatzea eta barruan daukazuna ateratzea da garrantzitsuena"**
**Mikel Escobales** > Grafitilaria

**Maider Etxaniz** > Udaleko Gazte zerbitzuko teknikaria

## "Gazteek uste baino zaletasun handiagoa dute hip-hoparekiko"

**I.B.** > ARETXABALETA
**Udaleko Kultura Sailak gazteendako zerbait erakargarria eta berritzailea antolatu gura zuen; zeregin horretan ibili da Gazteria Zerbitzuko Maider Etxaniz.**



I.B.

**Zer dela-eta, antolatu duzue halako egun berezia?**
Uztailean gazteendako zerbait berezia egin gura genuen, eta posible balitz berritzailea. Ibarrean ez da orain arte hip-hop jairik egin, baina uste dugu gazteen artean badagoela horren gaineko zaletasuna. Are gehiago, ahalegindu gara erakusten hip-hopa euskaraz bizi daitekeela.

**Zerk izan du arrakasta handiena?**
Ikastaroetan gazteak oso gustura ibili dira, motibatuta ikusi ditut. Arratsaldekoa, berriz, ikuskizun polita izan da, osatua, eta jakin-mina piztu du; gainera, herriko hip-hop taldetxoa deskubritu dugu!

Bestalde, pena hartu dugu hain eguraldi beroa egin izanagatik, uste baino jende gutxiago etorri delako.



Arrasateko plaza bete egin zen egubakoitzean Kukai dantza konpainiaren 'Soka' ikuskizuna ikusteko. JOSETXO ARANTZABAL

**DANTZA** > KUKAI DANTZA KONPAINIAREN 'SOKA' IKUSKIZUNA

# 'Soka', tradizioa eta oraina

**NON:** Arrasateko plazan.
**EGUNA:** Uztailak 10, egubakoitza.
**ZENBAT JENDE:** 300 lagun inguru.
**IRAUPENA:** 20 minutu.

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Dantza eta perkusioa. Horiek biak bateratuta zer ateratzen den galdetzen badigute, ez zaigu seguru asko jarraian azalduko duguna burura etorriko. Perkusio erritmoak izan ziren Arrasateko plazan egubakoitzean egin zuten ikuskizunean oinarri; edo dantza urratsen oinarri. Perkusioa musika, eta dantza eta gorputz espresioa adierazpen gorena.

*Soka* deritzon ikuskizuna da Kukai dantza konpainiak Arrasaten aurkeztutakoa. Agertokia, Herriko Plaza, kalea. Maiatzean estreinatu zuen *Soka* ikuskizuna Kukai konpainiak. Aurreko lanekin konparatuta badu aldaketa nabarmen bat; *Soka* kalean egiteko gertatutako lehen ikuskizuna da.

**TRADIZIOA ETA ORAINA**

Bost dantzari eta bi perkusio jotzailerendako dantza ikuskizuna da *Soka*, eta irudikatzen denaren abiapuntua edo oinarria, Gipuzkoako soka dantza. Ikuskizuna, berriz, Jon Maya dantzari eta taldekidearen eta Pantxika Telleria koreografo lapurtarraren arteko elkarlanaren emaitza.

Musika perkusio erritmo soiletatik haratago desagerrarazi egin dute. Ez da apustu makala, dantza tradizionalak ikustera eta entzutera oso ohituta dagoen jendarte baterako. Gainera, dantza tradizionala eta garaikidea uztartzea berritasuna eta apustua bada, zer esanik ez, horri musika kendu eta perkusioa dantza horren oinarri bilakatu gura izatea. Kontuak kontu, Arrasateko plaza ia bete egin zen Kukai dantza konpainiaren lan berri horretaz gozatzeko. Aurreskuaren, arin-arin eta fandangoaren... pausuak, urratsak, izan ziren *Soka* ikuskizunean tradizioaren zantzuak ekarri zituztenak, eta mugimendu garaikideak, zaharraren eta berriaren arteko bateratze horren lotura. 20 minutu baino ez zituen iraun ikuskizunak; motza, baina aldi berean bizia eta erakargarria izan zen.

**BORROKA, JAIA, BESARKADAK**

Dantzariak desafioka bezala ari ziren; borroka, festa eta besarkadak irudikatu zituzten.

**MUSIKA** > GOIKOROCK LOKALEN INAUGURAZIOA

# Musika, jatekoa eta edatekoa inaugurazioan

**NON:** Bergarako tren geltoki zaharra.
**EGUNA:** Uztailak 10, egubakoitza.
**ZENBAT JENDE:** 50 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.



Goikorock lokalen inaugurazio kontzertuaren une bat. MIREN ARREGI

**M.A** > BERGARA

Egubakoitzean egin zuten Bergaran Goiko Estazioko lokal berrituaren inaugurazioa. Maiatzetik, baina, bertan entseatzen dihardute 22 musika taldek.

Ordu beteko denbora tartea izan zuten taldeek, kanpoan saio txiki bat eskaintzeko. Goiko Estazioko lokaletan entseatzen duten talde guztiek jotzeko denbora gutxi, eta horietatik lauk jo zuten.

**ALDAKETA NABARIA**

Nahiz eta beroaren eraginez une txarrak igaroko dituzten –bero handia egiten du lokaletan–, nabari da gustura daudela, eta eraberritu bariko lokaletako baldintzak nabarmenki hobetu direla. Gelan intsonorizatuta daude (ezinbestekoa rock musika egiten den lokaletan), egitura ere lehengoa baino egokiagoa da, eta gainera, orain, komunak ere badituzte. Egubakoitzeko inaugurazioan, ez zuen jende gehiegik parte hartu, baina ez zuten hutsik egin udal ordezkariek. Guztiek, lagun giroan, lunch eder batez gozatu zuten kontzertuen ostean.

> SAN FERMINAK

### Ekon taldeak San Ferminetan jotzea debekatu dute

Gora Iruña kolektiboak San Ferminetarako antolatuta zituen ekintza gehienak debekatu dituzte, horien artean, Arrasateko Ekon taldearen kontzertua. Gaur, hilak 13, ziren Ekon taldekoak San Ferminetan emanaldia egitekoak. Gora Iruña kolektiboak egitarau ofizialetik kanpo, 450 ekitaldi zituen antolatuta San Ferminetarako; eta horien artean Ekon taldearen kontzertua. Hasiera baten guztiek aurrera egingo zutela uste bazen ere, UPNk eta PSNk, terrorismoa gaitzesteko adierazpen bat egin ezean, antolatutakoak debekatuta geldituko zirela eman zion aditzera Gora Iruña kolektiboari. Ekonekin batera, Def Con Dos, Obrint Pas eta Kaotiko taldeei ere San Ferminetan jotzea debekatu diete. Yolanda Barcina alkateak esan du, talde horiek ez diotela Iruñari inolako ekarpe-

**MUSIKA** > FRIDAYS CREW, AGGRESSIVE COMBAT ETA HUDSON FALCONS

# Jarrera hurbilarekin mugak gaindi daitezke

**NON:** Arrasateko Gaztetxean.
**EGUNA:** Zapatua, uztailaren 11.
**ESTILOAK:** Punk-rock eta oi!.
**IRAUPENA:** Hiru bat ordu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

New Jerseyko (AEB) Hudson Falcons taldea Arrasateko gaztetxera joatea ohitura bilakatu da. Hala, 2006 aldera ia kasualitatez han jo zutenetik, Europatik barrena egin duten bira guztietan gaztetxe hori bisitatu dute.

Ez da gutxiagorako, taldeko arima eta gidari Mark Linskey beteranoa eta haren taldekideak oso jatorrak direlako, Euskal Herrira etortzearekin pozarren egoten direlako eta kontzertu izerditsu eta bizi-biziak egiten dituztelako.

**AGERTOKI BARIK, LURREAN**

Bi arrazoik bultzatuta, soinu ekipo handirik alokatzeko dirurik ez eta estatubatuarrek jendearen gertutasuna eskertzen dutela, kontzertua lurrean egin zuten eta ez agertoki gainean. Horrek bestelako hurbiltasun eta *feedback*-a eragiten du, baina zoritxarrez soinua zikin samarra zen; zer egingo diogu, bada?

Friday´s Crew ezin izan genuen ikusi. Horien ostean, Hudson Falconsek piztu zituzten anplifikadoreak (ezin agertokira igo zirenik esan!) eta rock-and-rolla zabaldu zuten zentzu zabalenean. Linskey abeslaria errepidean bizi dela esan dezakegu, oraingoan ere haren taldearekin Europatik barrena bost astetan ia egunero kontzertuak egiten dabil-eta.

**AGERTOKI BARIK, LURREAN**

Bera da taldeko abeslari, gitarra jotzaile eta arima; begiak itxita gai da (eta hala egiten du, gainera) AEBetako punk-rock *red-neck*-aren kantu bizkor eta biziak interpretatzeko, punk-popetik hurbil dauden pieza itsaskorrak, Dictators-en kantutegiko *hit!*-ak, Blitz punk-oi! taldearen kantu herrikoiak eta, baita ere –zergatik ez?– Bob Marleyren *Redemption song* a capella abesteko.

Hori guztia, gainera, talde gazte baina indartsu batek lagunduta egiten du. Eta taldeak ordu eta erdian ez du ia etenaldirik egiten. Errepidean bizi dira, eta gustia ematen dute kontzertuan, Arrasaten moduan, jendea zoratu eta euren inguruan dantzan jarri arte.



Hudson Falconseko Mark Linskey. IAGOBA DOMINGO



Aggressive Conbateko sid. JOSETXO ARANTZABAL

**AGGRESSIVE COMBAT, SASOITSU**

Eta gauari bukaera emateko, Arrasateko Aggressive Combat. Gogor dabil Arrasateko boskotea eta Alemaniako bira egin aurretik, kontzertu indartsuak ematen dihardu; gero eta hobeto ikusten ditugu.

Emanaldi hasieratik ikusleekin bat eginda, kantu propioez gain, Zakarrak, Cockney Rejects, Social Distortion, Xabier Lete eta beste talde askoren bertsioak egin zituzten; emanaldia jai bat izan zen.





# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan:** ***www.goiena.net/blogak/argazkiak***



**NILOKO ILUNABARRA.** Argazkia Egipton Nilo ibaitik ateratakoa da. Ez dugu erraz ahaztuko han bizi izandako une gogoangarriak; Niloaren magia eta lasaitasuna. **/Argazkia: Aurora Trenado.**



**ZUMAIAKO BELAONTZIA.** 2008ko udan Zumaia parean egindakoa argazkia belaontzi batetik, egunsentian. Lasaitasuna topatzeko ez dira kilometro asko egin behar. **/Argazkia: Esther Gabilondo /Bergara**



**IKUSGARRIA.** Toronton (Kanada) publizitatea egiteko modu bitxia asmatu dute. Ezin ukatu, arreta pizten duela. **/Argazkia: Eider Otxoa /Aretxabaleta**



**NAFARROAKO ERRIBERAKO ILUNABARRA.** Argazki hau, aurtengo udan ateratakoa da eta Nafarroako erriberan ateratakoa da. Bertan 21:30ko ilunabarra ageri da. eguzkiari argazki dexente atera eta gero ,uste dut hau egokiena zela bertara aurkezteko. **/Argazkia: Josu Zubia Markuleta /Oñati**

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2009ko irailaren 19a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 6ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

## Sariak:

- **1. saria: Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.




## Laguntzaileak:

Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
kiñu argazkilariak
GURE AMETSA JATETXEA
OLYMPUS
Your Vision, Our Future

GURE TALDEAK

## Oñatiko musika taldeak




Argazkian, Jon (Klinesa ta Kaka Arrastua Kumunzuluan), Txomin (Bitz), Joseba (Galdu Arte), Jon (Ez!) eta Jon (Drakes). JOSETXO ARANTZABAL

# "Gaztetxeak dauden artean jotzeko lekuak izango ditugu"

Drakes, Galdu Arte, Ez!, Klinesa ta Kaka Arrastua Kumunzuluan eta Bitz taldeek 'Oñati 2zirik' izeneko diskoa grabatu dute elkarrekin

Dagoeneko salgai jarri dute Oñatiko gaztetxean eta Boga, Arrano eta Pako tabernetan; laster jarriko dute Bergarako eta Arrasateko gaztetxeetan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Oñatiko Drakes, Bitz, Ez!, Galdu Arte eta Klinesa ta Kaka Arrastua Kumunzuluan taldeek diskoa grabatu dute. *Gazteburuan* egin zuten aurkezpena, eta diskoaz berba egiteko talde bakoitzeko kide bat elkartu ditugu.**

**Ze helbururekin grabatu duzue diskoa?**

Oñatiko taldeek grabatutako punk disko bat kaleratzeko helburuarekin. Beste helburu bat zen gure kantuak ezagutzera ematea. Gure kontzertuetan giro handiagoa sortu nahi dugu, eta zuzenekoetara datozenek kantuak ezagutzea eta abestea gurako genuke.

**Zergatik zuek bostok eta ez beste talde batzuk?**

Diskoa grabatzeko deialdia egin genuen. Kartelak jarri genituen kalean eta bost taldek eman genuen izena. Hasieran sei talde aurkeztu ginen, baina batek etenaldia egin zuen eta ezin izan du grabatu. Dena den, deialdia punk estiloa egiten zuten taldeetara mugatu genuen.

**Non grabatu duzue diskoa? Zenbat denboratan grabatu duzue eta nolako esperientzia izan da?**

Diskoa Oñatiko gaztetxean grabatu genuen 2009ko maiatzaren 23an, zuzenean. Aurreko egunean gailu guztiak muntatu genituen han, eta 23an (zapatua) goizeko hamarretan hasi ginen grabatzen, arratsaldeko seiak arte. Grabatzeko ekipoa eta ordenagailua Drakes taldeak jarri zituen eta gainerakoak, besteak beste anplifikadoreak, mikrofonoak eta bateria, guztion artean jarri genituen. Nahasketak eta masterra Bitz taldeko bi kidek egin zituzten hiru astean euren lokalean, eta Drakes taldeko kide baten laguntza ere izan zuten. Bereziak taldearen kantua Show Business taldearen lokalean grabatu zuten.

**Bakoitzak zenbat kantu eta zeintzuk grabatu dituzte?**

Bitz taldeak *Mina zan*, *Odola*, *Bizarro* eta *Jarraituko du* grabatu ditu; Ez! taldeak *Gaztetxia*, *Ez gara jaio*, *Preso* eta *Lege zikinak*; Drakesek *Alternapijos*, *Oñati*, *Un rayo de luz* eta *Varita magica*; Galdu Artek *AHT-rik ez!*, *Herriaren hotsa*, *Negozio bizitza* eta *Eraso nagusiei*; Klinesa ta Kaka Arrastua Kumunzuluan taldeak bi abesti grabatu ditu: *Alprojak* eta *Zuek zarete etorkizuna*.

**Salgai dago? Ze tokitan?**

Orain arte *Gazteburuan* eta Oñatiko gaztetxean saldu dugu. Oñatiko Boga tabernan ere eros daitezke. Dena den, laster Oñatiko beste taberna batzuetan jarriko dugu; besteak beste, Arranon eta Pakon. Bestalde, Arrasateko eta Bergarako gaztetxeetan ere salgai dago. Guztietan, bi euroren truke eros daiteke diskoa.

***Gazteburuan* egin zenuten diskoaren aurkezpena. Halako beste kontzerturik egingo duzue?**

Asmoa dugu irail edo urri aldera *Oñati 2zirik bira* egiteko. Gehienez lau bat kontzertu egingo ditugu, guztiak gaztetxeetan. Baina oraindik ez dugu zehaztu.

**Zuen moduko taldeendako zaila da tokia egitea musika munduan?**

Auzoko jaiak eta gaztetxeak dauden bitartean jotzeko lekuak izango ditugu. Gainera, diskoa grabatzea ez dela zaila erakutsi dugu. Gogoarekin eta ilusioarekin edozer gauza egin daiteke.

**Nola moldatzen zarete guztiok Errekaldeko lokaletan?**

Oñatiko talde guztiek ez dugu Errekaldeko lokaletan entseatzen. *Oñati 2zirik* diskoan parte hartu duen EZ! taldeak, adibidez, Olapotoko garaje baten entseatzen du. Hori bai, grabaketan ez dugu arazorik izan eta ondo moldatu gara.




### Oñatiko taldeak ezagutzera emateko aukera

Orain dela pare bat urteko ekimenari jarraituta, Oñatiko gazte batzarrak *Oñati 2zirik* bilduma kaleratu du. Oraingoan, Ez!, Drakes, Bitz, Galdu Arte, Klinesa eta kaka arrastua kumunzuluan eta Berezia taldeek esku hartu dute; guztira, 20 kantu.

Gazte batzarraren inguruan dauden talde gehienek punka egiten dute, baina horien artean berezitasunak daude: Ez! taldeak Vomito gogora ekarri digu, Drakes-ek Reincidentes, Galdu Artek punk-rock bizibizia eta Bitz-ek, berriz, punk jostaria, adibidez.

**Iker Barandiaran**

# Bergarako ikuskizuna Goiena Telebistan

Bergaran ekainaren 13an eta 14an grabatutako ekitaldiak

**Uztailaren 13tik 19ra, 20:45etik 21:15era**

Errepikapena: hurrengo eguneko 13:45ean; zapatuan 10:00etan eta domekan 14:15ean














# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 65 metro koadroko etxe berritua, 3 logela (1 jantzia), egongela, sukalde jantzia eta bainugela. Oso argitsua, den dena kanpokaldera begira, bizitzera sartzeko prest. Oso ondo kokatua, Nafarroa etorbidean. Prezio ezinhobea: 165.280 euro (27,5 milioi pezeta). 695 78 32 93.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. 169.900 euro. Oso aukera ona. 618 44 38 44.

**Oñati.** Etxebizitza jantzia salgai Olakuan. Hiru logela, bi bainugela, sukalde berritu eta jantzia, jangela eta garajea. 943 53 36 74 edo 635 06 24 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Estreinatzeko dagoen etxea errentan ematen da. Uribarriko eliza atzean dago. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Denek kanpora ematen dute. Igogailua eta garajea ere bai. 685 72 78 23 edo 670 84 52 46.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan, lau edo bost pertsonarentzat, unibertsitate ondoan. 605 77 51 71.

**Arrasate.** Erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean, lau logelako pisua ematen da errentan ikasleentzat. Prezio negoziagarria. 616 50 67 28 edo 943 79 56 42.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logelarekin. Guztiz jantzia. 669 66 54 99.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Jokin Zaitegi plazan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Arratsaldez deitu, mesedez. 646 68 05 86.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat, unibertsitatetik oso gertu. 656 73 48 48.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 610 01 31 80 edo 943 03 78 20.

**Arrasate.** Zerrajera kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi komun ditu. Deitu 15:30etik 23:00etara bitartean. 685 73 29 94 edo 943 03 78 56.

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan. 615 75 11 47 edo 659 36 88 75.

**Donostia.** Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan datorren ikasturtean, ikasleentzat. Leku oso onean. 945 31 71 58 edo 678 82 06 46.

**Donostia.** Guztiz jantzitako etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Ikasleentzat, 2009-2010 ikasturterako. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin. 943 21 97 50.

**Eskoriatza.** Estreinatu gabeko etxebizitza ematen da errentan Intxaurtxuetan. Bi logela eta atikoarekin. Xabier. 647 51 52 54.

**Jaca.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean, abuztuko. Kirolgunea, igerilekua, jacuzzi, sauna, paddle leku eta squasharekin. 609 47 86 91.

**Oñati.** Eraiki berria den duplex atikoa ematen da errentan. 130 metro koadro. Jantzia. Aire girotua. Domotika. Lau logela eta bi bainugela. 610 73 34 88.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan, ETEO ondo-ondoan, etxebizitza handia ematen dut errentan, ikasleentzat, datorren ikasturtean. 688 63 82 39 edo 688 63 82 28.

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan. Guztiz jantzia. Instalazio pribatuekin: igerilekua eta aparkalekua. Hondartza eta itsas-paseotik 30 metrora. Telefonoak: 670 66 64 13 edo 943 77 19 09.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate** edo Debagoienean, familia serioak etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. Deitu ezazu telefono hauetara: 671 35 22 60 edo 657 20 30 71.

**Bergara.** Pertsona batendako etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 653 38 56 12.

**Donostia.** Familiako baten ospitaleratzea dela eta, uztailean eta abuztuan etxea hartuko nuke errentan. Rosi. Deitu ezazu telefono honetara: 649 55 48 10.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da, Arrasate erdialdean kokaturik dago. Baldintza ekonomiko onak. 605 76 07 59.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan erdigunean. Telefonoa: 663 65 78 43.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Pertsona bakarrarentzat. Telefonoa: 618 14 71 34.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Udaletxe ondoan. Sukalde handia, igogailua eta terraza dotorea. 688 64 10 13 edo 620 72 27 30.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik 5 minutura. Erguin aldean. Wi-fia eta berogailua. Pertsona bakarrarekin batera bizi izateko. Deitu ezazu telefono honetara: 667 53 70 12.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 699 66 33 63.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Arrasate erdialdean dago. Baldintza ekonomiko onak. 605 76 07 59.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 699 28 99 06.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu beste hirurekin etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 670 85 86 68.

